

Ertzaintza Berrantolatu eta Modernizatzeko Plana



0. SARRERA

1. EUSKADI: GIZARTE DESBERDINA

- 1.1. DEMOGRAFIA ETA LURRALDEA**
- 1.2. AZPIEGITURAK ETA MUGIKORTASUNA**
- 1.3. HIRIGINTZA**
- 1.4. TEKNOLOGIA BERRIAK**
- 1.5. MEHATXUAK ETA DELITUAK**

2. ERTZAINZA. LEGE ETA ANTOLAMENDU ESPARRUA

- 2.1. POLIZIA EREDUA**
- 2.2. LEGE ESPARRUA**
- 2.3. HIRU HAMARKADAKO ANTZINATASUNA DUEN ERAKUNDEA**

3. LEHENENGO NEURRIAK. ALDAKETAK 19 HILETAN ZEHAR

- 3.1. ZUZENDARI BERRIA. ATAL BERRIAK**
- 3.2. LEHENTASUNA: TERRORISMOARI FRONTE GUZTIETAN GOGOR EGITEA**
- 3.3. PLANTILLA OSORIK**
- 3.4. TRAFIKOKO POLITIKA BULTZATZEA**
- 3.5. GENERO INDARKERIA**
- 3.6. LANEKO ARROPA**
- 3.7. POLIZIA ETA LARRIALDI IKASTEGI BERRIA ETA BERE PRESTAKUNTZA PLANA**

4. ERTZAINZA BERRANTOLATU ETA MODERNIZATZEKO PROPOSAMENAK

- 4.1. ARRETA HOBEA BALIABIDE TELEMATIKOEN BITARTEZ**
- 4.2. ERANTZUTEKO GAITASUN HANDIAGOA DUTEN PATRUILAK**

- 4.3. HERRITARREI ARRETA EMATEKO BULEGOEN SAREA
BULTZATZEA**
- 4.4. KOMISARIEN MUGAKETA BERRIA**
- 4.5. ZUZENDARITZA ETA KUDEAKETA TALDEEN BATERATZEA
HIRI JARRAIKORTASUNEN EREMUETAN**
- 4.6. UDALTZAINGOEN KORDINAZIOA**
- 4.7. BALIABIDEEN OPTIMIZAZIOA ETA BERRANTOLAKETA
BENETAKO LPZ BATEN BITARTEZ**
- 4.8. CALL CENTER 112**
- 4.9. IKERKETA LANEN ANTOLAKETA BERRIA**
- 4.10. BALIABIDE GEHIAGO ETA BURUZAGITZEN ERANTZUKIZUN
HANDIAGOA**
- 4.11. LANEN MOTIBAZIOA ETA ABSENTISMOAREN AURKAKO
BORROKA**
- 4.12. ATXILOTUEN KUDEAKETA HIRIKO METROPOLI-AREETAN**
- 4.13. HERRITARREN SEGURTASUNA INDARTZEKO BRIGADA**
- 4.14. BRIGADA MUGIKORRA**
- 4.15. PERTSONAK BABESTEVA ETA LAGUNTZEA**
- 4.16. TRAFIKO ATALA**
- 4.17. KRIMEN GAJETARAKO POLIZIAREN ATALA**
- 4.18. TERRORISMOAREN AURKAKO ETA INFORMAZIOKO ATALA**
- 4.19. INFORMATIKA ETA TELEKOMUNIKAZIO SISTEMEN
MODERNIZAZIOA POLIZIA SISTEMA KUDEATZEKO**
- 4.20. PRESTAKUNTZA, SUSTAPENA ETA EGONKORTASUNA
LANEAN**
- 4.21. LANBIDE ZUZENDARITZA OPERATIBOA**
- 4.22. SEGURTASUNA IKUSPEGI INTEGRAL BATETIK**

0. SARRERA

Dokumentu honen xedea da Ertzaintzaren berrantolaketa eta modernizazioa egitea; hain zuzen, herritarrei zerbitzu hurbilago, arinago eta eraginkorrago bat eskaintzeko.

Gure polizia martxan jarri zenetik, demokraziaren etorrerarekin batera, 1995ean burutu zuen lurraldean zabaltzea. Bere egiturak eta antolaerak, ordea, ez dute ia aldaketarik izan. Hala ere, Euskadin, euskal gizartean, aldaketa eta bilakaera handiak izan dira.

Gaur egun gure gizartean bizi-maila eta ongizate altuak daude eta, era berean, herritarrek segurtasun pertsonal handiagoa eskatzen dute beren ondasunetan, errepidean eta kaleetan. Gainera, delitu batzuei dagokienez, sentsibiltate handiagoa dago.

Euskadin aldaketak izan dira mugimendu demografikoen alorrean; horrenbestez, hainbat herri eta hiritan biztanle-kopurua nabarmen igo da eta beste batzuetan, aldiz, kontrako joera izan da. Azken 30 urteotan hiri-tipologia berriak sortu dira, hala nola, bizitegi-zonak landa-nukleoetan, auzo berriak, industrialdeak eta merkataritza-gune handiak.

Aldaketek eragina dute herrigune ertain eta handietan, baina txikietan ere gauza bera gertatzen da; horregatik, esan dezakegu Euskadi osoan bizi-ohiturak, kontsumoa eta aisia aldatu egin direla.

Eraldaketa soziologiko hau izan dezagun migrazio-mugimenduek ere lagundu dute. Beste erlijio, hizkuntza eta kultura batzuk gure errealitatearen parte dira eta, aberatsago bihurtu duten arren, halaber konplexuago eta kudeatzeko zailago bilakatu dute.

Garraioaren azpiegiturak berritzeak eta beste berri batzuk sortzeak herritarren mugikortasunaren alde egiten dute. Komunikazio-sare berriek desplazamenduak bizkortu dituzte eta, aldi berean, ordain dela hogeitun urte udalerrri batzuen artean zeuden komunikazio-eragozpenak desagerraraztea ahalbidetu dute. Eta prozesu honek etorkizunean jarraituko du beste garraio-eskaintza batzuk eskuragarri jarriz, esate baterako, trenbide-sare berria, euskal Y-a, barruko zein kanpoko loturak erraztu eta gehituko baitituzte.

Errepideen sare berriek eta teknologia berriek posible egiten dute polizia-baliabideen desplazamenduak azkarragoak izatea eta; bestetik, herritarrekin komunikazio zuzenagoa egotea mesedetzen du.

Gaur egun patruilariak datuak transmititzeko bitartekoak dituzte pertsonen identitatea eta ibilgailuei buruzko datuak berehala jakiteko eta; horrez gain, zehapenak in situ ordaindu ahal dira. Halaber, teknologiari esker, koordinatutako aginte-zentroetatik poliziak errezago bana daitezke eta gertaera bakoitzaren erantzun-denbora modu nabarian aurreztu egiten da. Azken finean, telekomunikazio eta informatika arloko aurrerapenek aldatu dute herritarrek Ertzaintzarekin duten harremana, eta etorkizunean are gehiago aldatuko dute.

Azken hiru hamarkadetan izandako aldaketak egun dagoen delitu-tipologia desberdin batean islatzen dira, baita salaketa-kopuruaren gorakadan eta kriminalitate-indizeetan ere. Segurtasunerako mehatxu berriak sortu dira; hala nola, delitu informatikoak eta diru-delituak, ingurumenaren kontrako delituak edo talde kriminal antolatuek egindakoak. Horiei guztiei erantzun azkarra eta eraginkorra eman behar zaie. Gainera, egun genero-indarkeriaren gaitzarekiko gizarte-sentsibiltate berria dago, erantzuna behar baitu eta; bestetik, trafikoko segurtasuna eskatu egiten da eta horri ere arreta eman behar zaio.

Plan hau lantzeko gure inguruko beste polizia batzuen esperientzia eta informazioa kontuan hartu dira. Horiek lagungarriak suertatu zaizkigu gure giza-baliabideen operatibitate eta eraginkortasun handiagoaz segurtasuna hobetu dadin.

Beste alde batetik, aintzat hartu behar da azken urteotan segurtasun pribatuaren arloko jardueraren hazkuntza, bai agenteek egindakoa bai eraikinetan, erkidegoetan, aisialdirako tokietan edo hiri-espazioetan baliabide teknikoen bitartez burututakoa (kamerak eta beste zaintza-sistema batzuk)

Ez dira ahaztu behar udaltzaingoetan izandako aldaketak, zeren beren hedadura eta lanbide-prestakuntza eta prestakuntza teknikoa nabarmen hobetu baitira. Orain dela hiru hamarkada ia modu eskusiboan trafikoa zaintzen eta administrazio-polizia lanak egiten aritzen ziren; baina gaur egun, ordea, udaltzaingorik nagusien jardunak bere barnean segurtasun publikoari loturiko arlo ugari hartzen ditu.

Kidego hauen eboluzioa eta Ertzaintzarekin izan beharreko koordinazioa direla eta, derrigorrezkoa da azterketa zehatz bat egitea nahi dugun lankidetzamailla eta baliabideen aprobetxamendua lortzeko. Helburu berarekin, Poliziaren Kidego Nazional eta Guardia Zibilarekiko lankidetzazainduko dugu; hain zuzen, gure lurraldean atzera egin zutenetik bi hamarkada igaro eta gero.

Edozein kasutan, gogoratu behar dugu, kidego batzuk toki berean daudela kontuan izanda, Europako eskualdeetan Euskadi dela biztanleko polizia-ratiorik handiena duena, gainera Autonomia Erkidegoan jardunean ari diren Polizia Nazionala eta Guardia Zibila gehitu gabe.

Era berean, gogoan izan behar da gure poliziaren plantilla laster 8.000 polizien kopurura iritsiko dela, 2004ko azaroko Segurtasun Batzordean hala erabaki baitzen. Gainera, aurrean hasita, ertzainak 60 urte betetzean erretiratu ahal dira pentsioaren % 100 jasotzeko eskubidea dutela.

Gure poliziak berritzeko prozesu bati hasiera eman dio; hain zuzen, hurrengo 20 urteetan plantilla osoari eragingo diona. Prozesu horretan zehar beharrezkoa izango da Ertzaintzan dagoen emakume kopuru txikiaren arazoa konpontzea. Une honetan, emakumezkoak diren agenteen portzentajea plantilla osoaren % 10,3 da, eta proportzio hori are txikiagoa da goi-eskaletan.

Ertzaintza berrantolatu eta modernizatzeko egiten dugun proposamenak segurtasun publikoaren ikuspegi integrala du, era horretan segurtasun

handiagoa emateko eta herritar guztien eskubideen eta askatasunen erabilera hobeto bermatzeko. Gure poliziaren eginkizuna ezaguna da: Terrorismoaren kontra fronte guztietan borrokatzea desagerraraz dadin eta bakea eta askatasuna sendotu daitezen; delitu mota guztiak prebenitzea eta gure kaleetan, gure etxeetan eta gure errepideetan segurtasunik handiena bermatzea.

Ertzaintza berrantolatu eta modernizatzeko planteatzen ditugun azterketa eta proposamenak burutu ahal izan dira iraganean beren jarduna une zailetan, herritarren eskubide eta askatasunen alde, egin zuten profesionalen eta arduradun politikoen lanari esker

Gure ustez, gogoeta hau modu lasaian eta zehatzean egitea proposatzeko unea heldu da, zeren euskal gizartean gauza asko aldatu eta are gauza gehiago aldatuko baitira. Euskadik bere polizia berreskuratu zuenetik hiru hamarkada igarota, aukera dugu modu hurbilagoan, egokiagoan eta eraginkorragoan herritarren eskariei erantzuna ematea Ertzaintzari ahalbidetzen dioten aldaketa sakonei heltzeko.

Plan honetan proposatutako ekintza asko bideratu dira baliabideak egoera ekonomikoaren eta Herri Administrazioaren jardunak bete beharreko efikazia- eta eraginkortasun-irizpideen arabera kudeatzera. Hori guztia gure lehenengo helburua bazterrean utzi gabe, hau da, terrorismoa desagerraraztea, gaitz horrek euskal eredu poliziala hastapenetik baldintzatu baitu. Gainera, behartuta egon gara, bereziki azken urteotan, autobabeserako ezohiko neurriak hartzera.

Guztiz jabetuta gaude Ertzaintza Berrantolatu eta Modernizatzeko Plan honek bilatu behar duela akordio instituzional, politiko eta sozialik handiena. Badakigu biltzen dituen neurrietako asko bakarrik adostasun zabal batez aplikatu ahalko direla, beste batzuk ekonomia- eta aurrekontu-erabilgarritasunari loturik egongo direla eta hainbat, ordea, ondorengo legegintzaldietan garatu beharko direla.

Ondorioz, dokumentu honetako proposamenak plan dimaniko eta; halaber, erakunde, alderdi politiko eta sindikatu guztiekiko negoziatzera irekita dagoen plan gisa aurkezten dira.

1. EUSKADI: GIZARTE DESBERDINA

1.1. DEMOGRAFIA ETA LURRALDEA

Azken hiru hamarkadetan Euskadik izan dituen aldaketek garrantzi berezia dute demografiaren eta biztanleriaren atalean. Izan ere, esan dezakegu goitik beherako aldaketa izan dela eta ondorioak ekarri ditu mugikortasunean, hiri-aglomerazio handietan, egoitza-guneen zabalkuntzan edo; horiez gain, merkataritza-gune handien eragina ere badugu, jendea erakartzen baitute. Horiek dira aipa daitezkeen fenomeno adieragarri batzuk.

Aldaketa horiek ere eragina izan dute polizia-jardunean. Hala ere, Ertzaintzak 1982az geroztik, polizia integral moduan, lurraldea bere gain hartu zuen hedapen-eredua aldatu gabe. 1995ean lurralde osoaren kontrola bereganatu zuen, behin Estatuko Segurtasuneko Indar eta Kidegoak beren eginkizun gehienetan ordezkatzeko prozesua amaitu zenean.

Euskadik aspaldi utzi zion hiri nagusi, industria-gune eta landa-guneen inguruan antolatutako espazioa izateari, non eginkizunak ongi zehaztuta eta hierarkizatuta baitzeuden; gainera, beren egitura ekonomikoei oso loturik. Nahiz eta espazio uniforme dela ezin dugun adierazi eta oraindik bizirik dagoen jatorriari uko egin gabe, esan dezakegu hurbilago gaudela Euskadi-metropoli izatetik, eta bertan zentroen mugak eta eginkizunak eta jarduerak gero eta lurralde zabalago eta anitzagoetan zabaltzen dira.

Hau ez da ohiz kanpoko ezaugarriak dituen prozesua, beste eskualde-hiri batzuek izan duten berbera da eta. Beren ezaugarrien artean aipa ditzakegu hiri-hedapena, mugitzeko gero eta behar handiagoa eta gero eta jarduera konplexuagoak dituen zerbitzu eta ekipamendu sistema sortzea. Horiek guztiek, halaber, delitu berriak eta segurtasun-eskari berriak eragiten dituzte.

Biztanleriari dagokionez, industria-krisia izandako urteetan zehar zenbait faktore ekonomiko eta sozial elkartu ziren eta atzerakda demografikoa eragin zuten. Berriki joera horretan aldaketa dagoela hauteman da susperraldia baitago eta ia-ia 80ko hamarkadaren hasierako maximoetara iritsi da.

Hala eta guztiz ere, eboluzio demografikoa ez da homogenea. Azken bosturtekoan hiru lurralde historikoetan biztanle-kopurua hazi da. Dena den, Araban biztaliaren etengabeko hazkundera izan den arren, Gipuzkoan oraindik ez da iritsi 1985eko biztanle-kopurura eta Bizkaian 1975eko kopurura.

Hirien eraldatze-prozesuek, fabrika-gune handiek garrantzia galdu izanak eta gero eta handiagoa den mugikortasunak eragin dute aldiri berriak sortzea eta hainbat landa-guneren "okupazioa" gertatzea. Prozesu honek azaltzen du zergatik hazi den eremu urbanizatua ia % 20, azken hamarkadan biztanle-kopurua funtsean aldatu ez den arren.

Hiri-garapen honekin batera, komunikazio-sistemen etengabeko hobekuntza egon da, betiere motorizazio orokortuaren testuinguru batean. Horren ondorioz, bidaien denborak nabarmen jaitsi dira eta; aldi berean, lurraldeko puntu

gehienetik metropoliko espazioetan eta aldirietako eremu berrietan kokatutako zerbitzuetara iristeko aukerak handitu dira.

Errepideen hobekuntzak eta automobilaren hedapenak berekin ekarri dute eskakizun tertziarioen zati gero eta nabarmenago bat egun hiriburueta, merkataritza- eta aisialdi-gune handietara aldatzea, baina lehen eskakizun horiek erdi mailako hirietan edo eskualdeburuetan betetzen ziren.

Horren ondorioa leku erakargarri anizkunen inguruan antolatutako hiri-egitura bat da, masa kritiko handiagoa duena eta zenbait jarduera bere baitan biltzen dituen eremu zabal eta anitzen arabera. Horietara hiritarrak sartzen dira giro-eta aukera-eskaintza ugaria baitago, lan-jarduera betetzeko zein aisialdiaz gozatzeko momentuan. Horrenbestez, esan dezakegu Euskadi orain dela hiru hamarkada baino elkarlotura handiagoa duen eta konplexuagoa den tokia dela; baina, halaber, segurtasun konplexuagoaren eskakizuna du, aurre egiteko zailago dena.

Gizarte honetan 2008an 65etik gorakoak biztanleria osoaren %18,7 ziren (1998ko portentzajea baino bi puntu gehiago, EB-27an bakarrik Alemaniak eta Italiak % 20,1az gainditzen dutena). Gainera, proiektioek aurreikusten dutenez, portzentaje hau hurrengo urteetan hazi egin da.

Adituek uste dute delitu baten biktima izateko probabilitatea ez dela handiagoa talde horretan, baina delitu mota jakin batzuen aurrean ahulezia handiago agertzen dutela ikuspuntu sozialetik isolatuago daudelako eta menpekotasun handiagoa dutelako. Biztanleriaren zahartzea, beraz, kontuan hartu beharrekoa da segurtasunaren estrategia diseinatzerakoan.

Bestetik, euskal biztaleriak aldaketa nabaria jasan du inmigrante-kopuru handia etorrira. Kultura, hizkuntza eta ohitura berrien etorrerarekin batera, aberasteko eta garapen kolektiborako aukerak eskaintzen dituen egoera honetan tentsioak ere azaltzen dira. Esaterako, aipatu nahi ditugu espazio publikoak okupatzean sor daitezkeen arazoak, beste kultura batzuek emakumeei ematen dioten gizarte-papera, delitu modu berrien inportazioa, etab. Horiek guztiak kontuan hartu behar dira segurtasun integraleko politika batean.

1.2. AZPIEGITURAK ETA MUGIKORTASUNA

Euskal Autonomia Erkidegoko garraioa azken urteotan nabarmentzen ari da mugikortasunaren hazkunde handiagatik eta, halaber, ibilgailu pribatuaren erabilerak desplazamenduen kopuru osoan duen garrantziagatik, baita errepide bidezko salgaien garrarioarenak ere.

Ingurumen- eta segurtasun-irizpideetatik ikusita, alderdi oso ona da bi erreiko bide-zatiak areagotzea. Horrek zuzeneko eragina du errepideetako trafiko-pilaketan eta ezbehar-tasaren murrizketan.

Bide-azpiegituretan egindako inbertsioek ere desplazamenduak mesedetu dituzte. Baina fenomeno horretan errepide-, autobia- eta autobide-sareak ez

ezik, baita merkataritza-guneek, barneko turismoaren sustapenak edo eguneko edo gaueko aisialdiaz gozatzeko dauden modek ere esku hartzen dute.

Euskadik 1,275.000 ibilgailu pribatu ditu, eta motorizazio-indizea (432 turismo 1.000 biztanleko) Europar Batasunean dagoen indizearen erdialdean dago, baina Espainiako batez bestekotik (481) beheraxeago. Euskal hiriburuetak sarbideetatik 343.959 ibilgailu igarotzen dira. Automobileren egiten dira errepide bidezko herriz kanpoko desplazamenduen % 78.

1.3. HIRIGINTZA

1982tik, hain zuzen, Ertzaintzaren hedapena hasi zen urtetik, hiri-eremuen itxurak ageriko aldaketak izan ditu. Prozesu horietako batzuek areagotu dute, batez ere, herritarren segurtasun-faltaren sentrazioa eta ez delinkuentzia-indizeak.

Hiru euskal hiriburuetak zenbait alderdi, eguneko ordu jakin batzuetatik aurrera hirietan gertatzen denaren antzera, jenderik gabe gelditu ohi dira. 30 urtetan, ordea, agerikoak dira hiri-eremuetan burututako hobekuntzak zaintza naturala areagotzeko, horretarako kale eta plazetako argiztapena hobetuz edo auzo berrietan eremu ireki handiak eratuz.

Finkatutako beste fenomeno batzuek, hala nola, alderdi zabal espezializatueta industria-jarduerak biltzeak, industrialdeetan alegia, segurtasun arloan eragina dute. Eremu horietan lapurretan aritzen diren talde antolatuen delitu-jarduera maiz errepikatzen da, polizia delitu mota horren jazarpena egin arren.

Hirigintza berriak merkataritza- eta aisialdi-guneen garapenaren fenomeno ere ekarri du. Gainera, familia bakarreko etxeak eta etxe atxikiak dituzten egoitza-guneetan beste segurtasun-behar batzuk dituzte gizarte-kontrolik gabeko eremuak baitira eta, beraz, ahulagoak.

1.4. TEKNOLOGIA BERRIAK

Giza-jardueraren arlo guztiak historian zehar berrikuntza teknologikoek ukitu dituzte; hain zuzen, garai modernoan garrantzi berezia hartu duen prozesua baita. Polizia-jarduera eta segurtasun-politikak ere ez dira teknologia berriak sorrarazten dituzten aldaketetatik kanpo.

Aldaketa teknologiko horiek herritarren eta Ertzaintzaren arteko komunikazioa ere aldatu dute, gaur egun askotan telefonoz edo Internet bidez lurraldeko edozein puntutatik egiten baita. Ertzaintzaren lehenengo hedapenean azaltzen zen aurrez aurreko komunikazioaren beharraren eraginez herritarrek nahitaez ertzain-etxeetara joan behar zuten, baina gaur egun ez da hain premiazkoa hori egitea, eta etorkizunean are gutxiago teknologia berriak sartzeaz batera.

Segurtasun-arloari aplikatutako teknologiek aurrerapenak lortu dituzte eremu guztietan. Berrikuntzak daude identifikazio-sistemetan (aztarnak, ahurraren

neurriak, aurpegi-egitura, erretina edo ADN), ikusteko sistemetan (bideozaintza, GPS, informatikoak), deskodetze-sistemetan (X izpiak), erabakiak hartzeko laguntza-sistemetan eta datu-baseak kudeatzeko sistemetan.

Polizia Informaziorako Sistemak (PIS) informazio erabilgarria eta nahikoa eskuratzeko dira. Era horretan estrategia jakin batzuk garatu ahalko dira eta, halaber, erabakiak hartzeko lagungarriak izango dira. Ez gara ari bakarrik delituen gaineko informazio estatistikoaz (eguna, ordua, tokia, biktimak, delitugileak), baizik eta ordu eta eremu kritikoei, auzoetako delitu-ereduei, industrialde edo merkataritza-guneei buruzko informazioa ematen duten mapez ere. Delitu-mapek ematen duten informazioa erabakiak hartzeko baliagarria da, haren bitartez jakin ahal baita poliziak non kokatu eta dispositiboen eraginkortasuna ebalua daiteke.

Horrez gain, teknologia berriek eragin handia dute segurtasun-politikak antzemateko eta iritzi publikoa sortzeko. Gaur egun komunikabideek errealitateari buruz beren ikuspegia orain ia bi hamarkada pentsaezina zen berehalakotasunaz ematen dute. Ohiko bitartekoen garapenez gain, Internetena eta gizarte-sareena ere baditugu.

1.5. MEHATXUAK ETA DELITUAK

Euskadi gizarte modernoa, anitza eta askotarikoa da. Ongizate eta bizi-kalitate maila altua du; eta gizarte aurreratu guztietan bezala, segurtasun handiagoa behar du, delitu berriak agertzen dira eta beste zenbaiti buruz gizarte-sentsibilitate handiago dago (genero-indarkeria, ingurumenaren kontrako delituak, diru-delituak, Interneti loturikoak), eta horiei guztiei Ertzaintzak erantzuna eman behar die.

Azpimarkatzekoak ere badira jarduera terroristak izan dituen aldaketak, ekintzen intentsitatea neurtzerakoan ez ezik, baita terroristek izan dituzten portaerazko jarraibideak neurtzerakoan ere.

Eta, bereziki, aldatu dira ia desagertzeraino une jakin batzuetan herritarren parte batek terrorismoari eta bere inguruari ematen zizkien onarpen eta babes soziala. Terrorismoa desagerraraz dadin aurrerapen handiak egin ditugu, eta helburu hori lortzeak behartuko gaitu gure polizian egokitzapenak egitera eta etorkizunean izango duen egiturari buruzko erabakiak hartzera.

Bestetik, gero eta globalizatuagoa den eta elkarri lotuago dagoen mundu honetan kriminalitate-moduak konplexutasun maila handira iritsi dira. Egun arreta jarri behar dugu orain urte batzuk guregandik aparte zeuden fenomeno batzuetan; hala nola, talde antolatuak, mehatxu informatikoak, inmigrazio-sareak, droga-trafikoa, ustelkeria edo ingurumenaren kontrako delituak.

Euskadin gehiengo sozial batek urtetan eskatu izan du demokratek kalea berreskuratu behar zutela. Gaur egun hori lortzeko egoera egokiago batean

gaude eta gero eta ekintza gutxiago dira delitu-jokabideetara makurtzen direnak edo pertsonen edo ondasunen segurtasuna arriskuan jartzen dutenak

Administrazioak gogor erantzuteko egindako eskarien artean ditugu genero-indarkeriaren eta etxeko tratu txarren kontrako borroka. Eremu horretan oraindik asko dago egiteke, baina gaur egun tresnak baditugu biktimak behar dituen laguntza eta babesak emateko eta, legea erabiliz, legez kontrakoak diren eta herritar gehienek gaitzesten dituzten jokabide guztiak jazarteko.

2. ERTZAINZA. LEGE ETA ANTOLAMENDU ESPARRUA

2.1. POLIZIA EREDUA

Sortu zenetik Ertzaintzak zenbait faktorerengatik tentsioak jasan ditu. Eragozpenak gainditu behar izan ditu, zeren aldi berean suertatu baitziren bere planifikazioa eta zerbitzu publikoaren burutzapena eta; bestetik, ezerezetik, lege-esparru oso bat gabe hasten zen polizia izatea.

1982an hedapena hasi zuen polizia haren berehalako helburuen artean Euskadiko Autonomia Erkidegoko lurraldean zabaltzea zegoen. Estatuko Segurtsauneko Indarrak ordezkatzeko esleitutako eskumenak betetzeaz gain, bazegoen eragin sinboliko bat. Ez da halabeharrez gertatu lehenengo promozioaren destino gisa autogobernutik sortutako erakundeen eraikinak babestea hautatu izana (Ajuria Eneako Jauregia, Eusko Legebiltzarra,...), ezta trafikiko arloko eskumenak lehenengo hedapen horretarako hautatuko beste arloa izatea ere, horrek ahalbidetzen baitzuen errepideetan agenteak ikusteko moduan egotea.

Ertzaintza garatuz joan zen Herrizaingo Saila zuzentzen zuten arduradunen eta ondoz ondoko agintarien ahalegin handiari eta lanari esker, saiatu baitziren polizia-eredu zibil, demokratiko, integrala eta hurbila abian jartzen.

Hiru hamarkadaren ostean, lehen urratsak eman zituenetik, gauzatu zen polizia-ereduaren oinarritzko ezaugarri hauek zehaztu daitezke:

- Polizia zerbitzu publiko gisa.
- Polizia zibila.
- Polizia demokratikoa.
- Polizia zigor-sistema osoan txertatuta.
- Polizia erkidegoan integratuta.
- Polizia prebentiboa.
- Polizia integrala.

Kontzeptu hauek Poliziaren Legeko Zioen Azalpenean jasota daude, “*polizia integral, demokratikoa, zibil eta eraginkor*” bat eraikitzeke eta finkatzeko helburu gisa oraindik adierazia.

Polizia **zerbitzu publiko** gisa ulertuta, Konstituzioaren eskakizuna da, aztertuta baitago, Espainiako Konstituzioaren 104. artikuluan segurtasuneko indarrak eta kidegoak Gobernuarekin eta Administrazioarekin lotzeari buruz ezarritako eredutik sorrarazia. Ertzaintzak eredu honi jarraitu behar zion eta Polizia Legearen zenbait ataletan modu argian egiten du.

Poliziaren **izaera zibila** ere Konstituzioaren aurreikuspenetik dator. Gauzak horrela, Legeko Zioen Azalpenean agertzen da eta arauen edukian jasota dago, 25. artikuluan, Euskadiko Polizia osatzen duten Kidegoei dagokienez. Bertan Ertzaintza eta udaltzaingoak aipatzen dira eta honako definizio hau ematen du:

“izaera zibileko kidego armatuak dira egitura zehatza eta hierarkia-antolaketa dutenak.”

Euskal polizien **izaera demokratikoa**, eta berriro ere Ertzaintza eta udaltzaingoak aipatzen ditu. Zioen Azalpenean azpimarratzen da eta Legean ezartzen dituen jarduteko arau orokorrak zehazten ditu eta beraiek *“polizia demokratiko baten jardueraren bereizgarri izan behar dute.”* (II.2 paragrafoa). Legearen zenbait manutik ateratzen da, non polizien jarduna legearen agintean jartzen den.

Zigor-sistema osoan txertatutako polizia da, eta bereganatzen du gobernu-polizia eta polizia judiziala izateko eginkizun bikoitza, Konstituzioaren aurreikuspenetik ateratzen baita. Horregatik, beren kideek Auzitegien agintaritza errespetatu behar dute eta dagokien polizia judizial jarduna betetzean Justizia Administrazioaren zerbitzura eta haren mende geldituko da.

Zerbitzatu behar duen **erkidegoan txertatutako** poliziaren izaerak adiera bikoitza du, bata sinbolikoa eta bestea teknikoa. Nabarmendu ahal da poliziaren eta gizartearen artean banaketarik ez dagoela, ez jatorriaren eta hautaketaren zentzuan, ez bizitzeko moduan edo ez egin litekeen beste azterketa-kanon batean. Erkidegoan txertatutako poliziaren kontzeptuak badu beste adiera bat, izaera teknikokoa, “hurbileko polizia” esamoldeaz definitu ohi dena. Bere ezaugarriak Ertzaintzaren polizia-ereduan aurki daitezke, baina ez modu osatuan.

Ertzaintzak bereganatutako polizia-ereduaren ohar adierazgarri jarraituz, polizia **prebentiboarena** aipatzen da. Kontrakoa, hain zuzen, erreakziozko polizia da, kuartelean geldi gertaera batengatik noiz mobilizatu zain dagoena.

Polizia prebentiboak bere egitura eta lana bideratzen ditu delitua galarazteko helburura. Arau-eremuan Ertzaintzaren orientabide prebentiboak islarik egokiena bere egituraren antolamenduan du, Herritarren Segurtasunaren Atalari prebentzio-lanak esleitzen dizkiona.

Azkenik, Ertzaintzak bereganatutako polizia-ereduaren ohar adierazgarrien artean aipatzen da polizia **integrala** izatea; hain zuzen, esan nahi baitu mendebaldeko kultura-testuinguan identifikatzen diren polizia-zerbitzu guztiak betetzen dituen dela.

Izan ere, ez da zenbait zerbitzu egiten dituen polizia bat, ezta dagokion Administrazioari babes edo laguntza emateari loturiko zerbitzuak betetzen dituen ere. Ertzaintza dugu Europako polizietan aurki daitezkeen zerbitzu guztiak biltzen dituen polizia da, bakarrik erkidez kanpoko gaiek mugatuta dagoela.

Dena den, jarduera terrorista gure Poliziaren antolakuntza-eredua baldintzatzen joan da eta, horren ondorioz, beharrezkoa izan da jarduera horri eta eraso terroristei erantzuna emateko autobabeserako neurriak eta lanerako sistemak hartzea.

Ertzaintza abian jarri ondoren izandako lehenengo manifestazioetan zaurituak egon ziren (horien artean ertzain batzuk zeuden), eta horrek agerian utzi zuen poliziarentzat indarraren legezko erabilera beharrezkoa zela. Ondorioz, Brigada Mugikorra sortzeko hautua egin zen (1983ko abenduan, II. promozioaren ikastaroa amaitzean), istiluen kontrako talde gisa, bereizteko uniforme eta irudi desberdinak dituen nahita hala erabaki zelako. Brigada Mugikorrak lehen aldiz esku hartu zuen Donostiako jaietan, 1984ko abuztuan.

Ez da ahaztu behar Ertzaintza laster hasi zela ETAREN helburu izaten. 1983an Gipuzkoako Diputazioko egoitza asaltatu zuten eta ehun pistola baino gehiago lapurtu zituzten. Gainera, ETAK hildako hamabost ertzainen zerrenda tragikoak agerian uzten du zein izan den ETAREN asmoa euskal poliziari buruz. Eta are gehiago, kaleak Ertzaintzaren kontrako goiburuz betetzen ziren eta ertzain batzuk ere kale borrokako eraso ankerren biktima izan ziren.

2001eko azaroaren 23an Beasainen izandako atentatuan Ana Isabel Aróstegui eta Francisco Javier Mijangos ertzainak tirokatu zituzten zirkulazioa antolatzen ari zirela eta, horren ondorioz, Arkauteko Akordioak eta 53. Jarraibidea sortu ziren. Berorietan neurriak hartzen dira, besteak beste, ertzainen segurtasun-baldintzak indartzeko.

Igarotako denborak, hortaz, argi uzten du beharrezkoa dela Ertzaintza Europako herrialderik aurreratuenetako polizien antzeko eredura eboluzionatzen joatea; polizia integral, zibil eta demokratiko gisa, gizarte moderno eta anitz baten segurtasun-eskakizunei erantzuna emateko antolatzen dena.

2.2. LEGE ESPARRUA

Polizia autonomia sortzeko Gernikako Estatutuaren 17. artikuluan bereganatutako eskumena dugu euskal autogobernuaren elementu bereizgarrietako bat da. Euskadin segurtasuneko zerbitzu publikoa abian jartzeko garrantzi berezia izan zuten bi elementuak hauek izan ziren: gure polizia sortzeko unean zegoen errealitate soziologikoa eta, bestetik, zerbitzua ematen hasteko beharra Ertzaintza sortzen, prestatzen eta hedatzen zen bitartean.

Zerbitzu publikoaren planifikazioa eta burutzapena batera joan ziren hedapena lurraldeetan egin zen urteetan. Baldintza horiek aldatu egin dira denbora igaro ahala eta gizartearen eboluzioagatik, baita zerbitzuaren beraren eboluzioagatik ere, zeren Autonomia Estatutua onartu zen momentukoaz bestelako errealitate soziologikoari arreta jarri behar baitio.

Prozesuaren jatorrian, Ertzaintza sortu eta abian jarri zenean, hiru baldintza berezi biltzen ziren; hain zuzen, ondorengo garapena markatu zutenak eta; halaber, erakundea ondorio guztiekin ulertu nahi izanez gero kontuan hartzekoak direnak. Hona hemen:

- Oso-osorik sortu berria den polizia da: eredia, antolamendua, prestakuntza, giza-baliabideak eta baliabide materialak.
- Zerbitzua hastean eta hedapenaren lehenengo urteetan eskumena zuzen baliatzea ordenamendu juridikoa, estatala zein autonomikoa, onartu aurretik gertatu zen, bere araudi-esparrua izan behar baitzuen.
- Ertzaintza sortzea eta zerbitzua hastea zerbitzu publiko bat abian jartzean espero daitekeenetik haratago joan zen; zeren elementu sinboliko bizia baitzen arrazoi hauek zirela medio: demokraziarako trantsizio egoera historikoa, autogobernuaren berrezarpena eta erakundeak berreskuratzea, eta herritarrentzat Ertzaintza erakunde horien ageriko parte eta parte sentikorra zen.

Ertzaintzari datxezkion eta bete behar dituen eginkizunei dagokienez, Estatuaren eta autonomia erkidegoen arteko eskumenen zedarritze konstituzionala Konstituzioan diseinatzen da; hain zuzen, segurtasun publikoaren arloan Estatuarentzat eskumen eskusiboa gordez eta kasuan kasuko Autonomia Estatuetan ezarritakora bi aldiz jo; batetik, nor bere polizia sortzea (elementu bereizgarria) kontuan hartuta eta, bestetik, arlo horretan aurreikuspen konstituzionalak garatu edo osatzeko Lege Organikoaren edukia kontuan hartuta (elementu bateratzailea).

Segurtasun Batzordeak Estatutuak ematen dion funtsezko papera bete du; bai dagokion koordinazio-eginkizuna, polizia-zerbitzu mota guztietan prozedura operatiboak sortuz, bai Ertzaintza abian jartzeko garaian erabakiak hartuz. Azpimarkatu behar da, bereziki, "Estatuko Segurtasuneko Indar eta Kidegoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren arteko Zerbitzu Mugaketari buruzko" 1989ko martxoaren 13ko Akordioa, hori izan baitzen bi polizien arteko eginkizunak banatu eta koordinatzeko arautegi orokorra.

Ertzaintzaren finantzaketa 1981eko abenduaren 28ko Kupoaren Batzorde Mistoan adostu zen, non poliziaren hedapena eta eraketa amaitu arte berariazko araubide bat ezarri zen, geroago abenduaren 29ko 3531/1981 Errege Dekretuak arautu zuena.

1982ko ekainaren 15ean Segurtasun Batzordeak Polizia Erregelamendua onartu zuen. Bertan eduki zabala jasota zegoen, besteak beste honako gaiak: kode deontologikoa, Burutzaren eta poliziaren beste atalen oinarritzko antolaketa, hedapenaren eremuak, poliziako funtzionarioen estatutua, beren karrera profesionala eta diziplina-araubidea. Erregelamenduak Arkauteko Polizia Ikastegia sortu zuen, I. promozioaren hautaketa eta prestakuntzarekin 1982an jardunean hasi baitzen. Hain zuzen, promozio hori 1982ko uztailean 603 agente osatzen zuten eta beren destinoak Autonomia Erkidegoko Erakundeak eta Erakunde Foralak eta Trafikoa izan ziren.

Lurralde-estaldura hamahiru hedapenetan osatu zen. Hedapen horiek biztalaria-eremu ertainetan hasi eta lurralde historiko bakoitzeko hiriburuetan amaitu ziren. Segurtasun Indar eta Kidegoen martxoaren 13ko 2/1986 Lege

Organikoa Konstituzioak deitutako Lege Organikoa da segurtasun publiko eta poliziaren arloan bere aurreikuspenak betetzeko.

Segurtasun Indar eta Kidegoen Lege Organikoaren Lehenengo Azken Xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoa aplikaziotik kanpo uzten du eta erregimen berezia araututa geratzen da. EAEko lurraldea ia artikulua guztietatik kanpo uzten du, printzipio orokor mugatu batzuk eta Segurtasun Batzordeari, Estatuko polizien eta Autonomia Erkidegoko Poliziaren arteko koordinazio-organo gisa, emandako bermea izan ezik.

Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoa bi helburu betetzen ditu; alde batetik, segurtasun publikoaren arloan demokratizazio-prozesua burutzea, horretarako Ordena Publikoaren Legea indargabetuz eta; bestetik, administrazio-eginkizun batzuk, erabat polizialak ez direnak, segurtasun publikoaren arloari dagozkionak.

Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko Lege Organikoaren Xedapen Gehigarri Bakarrak aurreikusten du arautzen dituen administrazio-eginkizunetan Estatuko agintarien ordezkari pertsonen eta ondasunen babesaren eta herritarren segurtasunaren arloan eskumenak bereganatu dituzten erkidegoko agintariak jartzea. Hau da, ez da nahikoa erkidegoak polizia sortzeko duen eskumena segurtasuneko administrazio-eginkizun horietan ordezkari eragiteko, polizia autonomiko horrek integrala izan behar baitu.

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak amaiera ematen dio segurtasun publikoaren arloan Konstituzioaren Lehenengo Xedapen Gehigarrian abiatzen den eta Estatutuaren 17. artikuluan, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen Legean eta Euskal Herriko Poliziari buruzko Legean jarraitzen duen arau-kateari.

2.3. HIRU HAMARKADAKO ANTZINATASUNA DUEN ERAKUNDEA

Ertzaintzaren hedapen historikoa

Ertzaintzaren hedapena 1982an hasi zen Euskadin, erakundeak zaintzeko eta trafikoa zuzendu eta kudeatzeko eskumenak bereganatzeaz batera. Une horretatik aurrera hasi zen prozesuak Euskal Herriko Polizia Ikastegitik atera ziren ondoz ondoko promozio guztiak lurralde osoan zehar zabaldu zituen.

Prozesu hori Gasteizera heltzean amaitu zen, zehazki 1995eko irailean. Polizierantzukizunak landa-udalerrietatik abiatuta hartu ziren, jarraian udalerrri industrialetara igaro zen eta gero hirigune handietara.

Hedapen-prozesua mugape judizialak, udalerrien elkarte historikoak edo komunikazio-sareak kontuan hartuz aurrera atera zen. Hedapenean sartutako segidako eremuak, berezitasun geografikoei begira, homogeenak eta, biztanleria-dentsitateari begira, orekatuak izatea bilatzen zen.

Komiasaria (ertzain-etxea) hedapenak izan zuen oinarrizko unitatea izan zen, nahiz eta zenbait zereginetan lurraldeko unitate espezializatuek lagunduta zegoen.

Gaur egun, ikusi dugun bezala, Ertzaintzak bere lana betetzen du hedapena eta ondorengo antolamendua eragin zituenaz bestelako egoera batean. Bere egiturak ia ez du aldaketarik izan. Oraintxe dugu aldaketak sartzeko aukera, eraginkortasun handiagoa bilatzeko eta, aldi berean, errealitate oso hurbilak gureganatzeko; hala nola, udaltzaingoen garapena, gizarteak nahi duen hurbiltasun-eredua bazterrean utzi gabe.

Euskal Autonomia Erkidegoko hurbileko poliziaren eredua. Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen artean partekatutako zerbitzua.

Erakunde polizial modernoak nabarmentzen dira herritarrentzako zerbitzu-ereduen apurka-apurkako ezarpenagatik. Hauek dira polizia-molde berriaren ezaugarri batzuk: Talde-lana, erkidegoko polizia, hurbileko polizia, arazoak konpontzeko bideratzea, gainerako polizia-zerbitzuekin eta gertakarian esku hartzen duten gizarte-eragile guztiekin lotutako sareen eraketa.

Egun herritarrek polizia-presentzia handiagoa nahi dute. Batez ere, polizia beharrezkoa den uneetan hurbiltasuna eta berehalakotasuna nahi dituzte.

Gainera, erakunde polizialek, bereziki udaltzaingoez, gizarte-eskariak eraginda, beren jardun-eremua handitu dute gai ugari bereganatuz; hala nola, ingurumena, kontsumoa, biktimentzako laguntza, familia barruko tratatu txarrak, bitartekotza, delikuentzia txikia eta antzeko beste gai asko.

Herritarrek ez dira konformatzen erantzun burokratizatu batekin. Kanean poliziei lanbideko ezagutza-maila handia eskatzen zaie, baita esku hartzen duten gaietan erabateko konpromisoa eta bitartekotza egin eta aukerak bilatzeko jarrera argia ere.

Polizia-lanen zati handi batek ez dauka zerikusirik zigor-legediarekin. Ekintza gehienak herritarrei informazioa edo arreta eskaintzeko dira edo haien eguneroko bizitzan laguntzeko, aldi berean gizarte-interakzioa eraginez, elkarbizitza normaltasunez egitea eragozten duten jokabideen kontra esku hartuz eta gatazka pribatuak konpontzeko bitartekotza eginez.

Herritarrentzako laguntza-eginkizuna deskribatzeko erabilitako terminologian, kontzeptualki, ugaritasun nabaria dago, zeren hurbileko polizia eta erkidego-polizia kontzeptuak batera erabiltzen baitira. Nolabait, hurbileko polizia kontzeptua aipatzean ulertzen dugu herritarrekin gertuko harremanean oinarritutako polizia-jarduna bilatzen duen eredua dela; hain zuzen, segurtasun-sentsazioa handitzeko. Bestetik, ordea, erkidego-polizia kontzeptua erabiltzen da gizarte zibilean eredugarritzat jotzen dituen eta erakunde egonkor eta ezagunetako partaide diren solaskideekin harrema bilatzen duen polizia-eredua definitzeko.

Administrazio-, laguntza- eta elkarbitzia-poliziaren bidezko herritarrekiko harremanean oinarritutako polizia-zerbitzu honen dimentsio hau batez ere udaltzaingoek egin behar dute beren idiosinkrasia eta eraketagatik; hau da, gertuko polizia da eta herritarrek hurbiltasun hori baloratzen dute. Udaltzaingoek etorkizunean, beti Ertzaintzaren laguntzarekin, eremu horretan ahalik eta gehien garatu behar dute beren espezializazioa. Jarduteko modu hori ordeztu eta bere egin behar du, baina beti subsidiariorotasun-, landiketza- eta koordinazio-printzipioak aplikatuz.

Udaltzaingoek, eta modu subsidiarioan Ertzaintzak, lehentasunez arretaz hartu behar dituzten eskariak gizarte-errealitateari oso loturik dauden eskumenak dira. Esan dezakegu lehen mailakoak direla eta funtsean segurtasun-faltaren arazoekin zerikusia dutela (prebentziozko patruilatzea, merkatari eta ostalarien elkarrekin harremana, etxeko indarkeria eta genero-indarkeria, laneko istripuak, gazteen aisialdia; gizarte-eskolako inguruetan, hala nola, droga-salmenta txikia eta absentismoa; kaleko lapurreta armarik erabili gabe; bideko segurtasun-falta, mugikortasun integrala; kaleko istiluak; droga-trafikoa, pirateria intelektualak, prostituzioa, hiriko bandalismoa, ingurumenaren babesa, kultura arteko gatazkak, elkarbitza-arazoak, eremu arazotsuen identifikazioa, bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonen laguntzea, bide publikoaren okupazioa aztertzea, establezimendu publikoen ordutegiak ez betetzea, eta ikuskizun publiko eta jolas-jardueren zaintza eta kontrola).

Arazo horiei erantzuna emateko beharra krimen antolatuen kontrako borrokatik eta beste delitu batzuetatik urruti dago. Gehien bat hurbiltasunean dago, herritarren segurtasun-faltaren sentzazioa galaraziz, zeren polizia-eskumenei buruz ez baitute ezer jakin nahi eta bai, ordea, beren arazoan konponbideei buruz.

Ertzaintzaren plantilla

Batzuek Ertzaintzaren plantilla handitzeko eskatzen duten arren, bere helburuak lortzeko, zentzu horretan ezin erabaki hartu baino lehen, ezinbestekoa da datu batzuk kontuan hartzea; baita dokumentu honetan berrantolaketakarako eta modernizaziorako hartutako neurriek, eta etorkizunean gehi litezkeen beste batzuek, izan behar duten eragina ere.

Aintzat hartu behar da, dokumentu honen hasieran genioen bezala, polizien ratioak biztanleko, Poliziaren Kidego Nazionala eta Guardia Zibila gehitu gabe, Europako altuenetan daudela. Eta, gainera, delitu-indizeak gure inguruko txikienen artean daude.

Badirudi, beraz, zentzuzkoa eta beharrezkoa dela, baliabide publikoak kudeatzen baititugu, polizia-kopuruaren gehikuntzaz aritu baino lehen, une honetan ditugun baliabideak berrantolatu eta optimizatzeko neurriak martxan jartzea.

Kontu egin behar dugu, gainera, 60 urte betetzean erretiratzeko akordioaren garapenak ahalbidetuko duela ertzain asko adin horretan erretiratu ahal izatea eta haien ordeztu jende gaztea sartzea. Ordezpen horiek lagundu behar dute

Ertaintzan egin diren aldaketak modu mailakatuan egin daitezzen, lan-baldintzak eta jarduneko ertzainen eskubideak ahalik eta gehien errespetatuz

Ertzaintzaren plantillari dagokionez, ezinbestekoa da emakumeen presentzia handitzea, gutxienez gure plantillaren % 35 lortu arte (gure inguruko polizia guztiek aholkatzen duten helburua) eta, horrez gain, dauden aginte-eskaletan emakumeek erantzukizunak bereganatuz joatea erdietsi behar da.

Beste alde batetik, plantillei dagokienez, karrera profesionala eta barne-igoera merezimenduetan eta balio profesionalean oinarritu nahi ditugu, eta horri esker hoberenak aintzakotzat hartuko ditugu eta Ertzaintzaren aginte-egituran egonkortasun handiago izango dugu.

3. LEHENENGO NEURRIAK: ALDAKETAK 19 HILETAN ZEHAR

Patxi López Lahendakaria eta bere Gobernua karguaz jabetu ondoren, Herrizaingo Sailak aldaketak egin eta neurriak hartu ditu Ertzaintzaren antolamendua eta eraginkortasuna hobetzeko, herritarren segurtasunaren alorrean zein terrorismoaren kontrako borrokan.

Poliziarentzat hasiera-hasieratik helburu argi batzuk ezartzea izan da gure asmoa. Honatx: eskubide eta askatasunen baliatze librea babestea, terrorismoaren kontra borrokatzea, herritarren segurtasuna bermatzea eta delituak prebenitu eta ikertzea. Eta lan horretan Eusko Jaurlaritza jabetuta egon da eta beti egongo da Ertzaintzari babesik handiena eman behar diola.

Lehenengo erabaki hauek eta denboran zehar hartu diren beste batzuek azken urteotan egindako lanarekiko errespetua izan dute oinarri; baina, halaber, euskal gizartearen eskariei eta garai berrietako erronkei erantzuteko aldaketak egitea eta neurriak hartzea beharrezkoa zela ziurtasuna izanda.

Helburua etorkizunari begiratzea da, merezi duena mantenduz, baina posiblea denean hobetzeko borondate sendoarekin, eta jarduera etengabeko eta jarraiko ebaluazio pean dagoela.

3.1. ZUZENDARI BERRIA. ATAL BERRIAK

Herrizaingo Sailaren ardura duen talde berriak hartutako lehenengo neurrietako bat izan zen Ertzaintzaren zuzendari gisa lehen aldiz ospe oneko profesional bat izendatzea. Agintari eta agenteenganako konfiantza aitortzeko modu argi bat zen.

2010eko otsailaren 5ean gure Poliziaren egitura berria onartu zen, 2006ko martxotik indarrean zegoena aldatuz. Egitura organikoan aurreikusitako aldaketek hiru atal berri ekarri zituzten: Terrorismoaren Aurkako eta Informazioko Atala, Ikuskatzailletza eta Administrazio Atala eta Trafiko Atala.

Agindu horrek Ertzaintzak ematen dituen zerbitzu guztiak hobetze aldera indarreko egitura eratu zuen, eta momentu horretatik honako ataletan dago banaturik:

- **Ikuskatzailletza eta Administrazio Atalak** Ikuskatzailletza Nagusiaren Atalak, Administrazio Unitateak eta Idazkaritza Teknikoaren Unitateak betetzen zituzten eginkizun eta jarduera gehienak biltzen ditu
- **Herritarren Segurtasunerako eta Ekintzetarako Baliabideen Atala** unitate batzuek osatzen dute. Unitate horiek eratzen zituzten jarraian agertzen diren lehenagoko atal hauek: Herritarren Segurtasunerako eta Ekintzetarako Baliabideen Atala (honakoak izan ezik: Lehergailuak Indargabetzeko Unitatea, Terrorismoaren Aurkako Atal berrian sartzen baita; Segurtasun Pribatuko Unitatea, Krimen Gaietarako Poliziaren

Atalaren parte izango baita; eta Trafikoko Lurralde Unitateak, Trafiko Atalean sartuko baitira).

- **Trafiko Atala**, non Trafikoko hiru Lurralde Unitateak sartzen diren.
- **Krimen Gaietarako Poliziaren Atala**, non Segurtasun Pribatuko Atala sartzen den, eta berarengandik Informazio eta Analisi Unitateak egiten zituen eginkizunak bereizten dira, berori desagertzen baita.
- **Terrorismoaren Aurkako eta Informazioko Atalak** Informazio eta Analisi Unitatearen eta Lehergailuak Indargabetzeko Unitatearen eginkizunak bereganatzen ditu

Informazio eta Administrazio Atala (IAA) sortzen da Ertzaintzaren eginkizun tekniko eta administratiboen eta gainerako polizia-arloen arteko lotura mesedetzeko beharragatik eta, halaber, etorkizunean egiturari sartu beharko diren kalitate-kontrolak eta aldakuntzak bultzatzeko, betiere etengabeko ebaluazioa kontuan hartuz.

Trafiko Atal berria sortzen da Herrizaingo Sailak uste sendoa baitu bide-segurtasunaren politika bat beharrezko dela, non Ertzaintzaren funtsezko papera betetzen duen. Trafiko Atal berriak Trafikoko hiru Lurralde Unitateak biltzen ditu eta Atalari staff tekniko bat eta burutza esleitzen zaizkio, beroriek prozedura, jarduteko moduak, aholkularitza teknikoa eta prestakuntza bateratzea ahalbidetzen baitute eta, gainera, Trafiko Zuzendaritzarekin eta Ertzaintzaren Zuzendaritzarekin komunikazioa izateko kanal zuzena da.

3.2. LEHENTASUNA: TERRORISMOARI FORNTE GUZTIETAN GOGOR EGITEA

Terrorismoari fronte guztietan gogor egitea, Zuzenbide Estatuak dituen tresna guztien bidez, legea bakarrik erabiliz, da denok izan behar dugun lehentasun bera. Horregatik, Gobernu honek sendotasun demokratikoko, tolerantzia zero eta terrorismoaren deslegitimazio etiko, politiko eta sozialeko politika bultzatu du. Hasiera-hasieratik ezarri zen helburuak terrorismoaren kontrako borroka orokorrean Ertzaintzaren emaitzak hobetzea bilatzen zuen, era horretan terroristak eta Legea urratzen duten guztiak atxilotzeko.

Terrorismoaren Aurkako eta Informazioko Atala kezka horri erantzuteko sortzen da; hau da, bakea eta askatasuna finkatzeko terrorismoaren kontrako borrokari ematen diogun lehentasunari erantzuteko.

Terrorismoari aurre egiteko lana Ertzaintza osoari dagokion arren, atal honek helburu hori lortze aldera bideratutako ikerketa eta ekintza guztiak zentralizatzen ditu. Bestetik, Ertzaintzaren antolamenduan maila hierarkiko gorena du eta, horrenbestez, jarduteko autonomia handiagoa du, baita baliabideak kudeatu eta koordinatzeko ahalmen handiagoa ere.

Ertzaintzak garai berri honetan terrorismoaren aurkako lehen operazioa Ondarroan egin zuen 2010eko urtarrilean. Bertan Bizkaiko herri horretako ertzain-etxearen kontrako atentatua burutu zuten ETako kideak eta beren laguntzaileak atxilotu zituzten. Geroago, Bilbon eta Gasteizen kale borrokarekin loturiko atxiloketa gehiago egin zen. Urte bereko abuztuan Joseba Pagazaurtunduaren ustezko hiltzailea ere atxilotu zuten.

Horren ostean, gure Poliziak egindako ikerketen ondorioz, atxilotu dituzte eta epailearen esku geratu dira 2010ean Portugaleten Ertzaintzaren patruila-auto baten kontrako erasoarekin zerikusia zuen pertsona bat eta; bestetik, Gipuzkoan, Soraluzen, 2005ean gertatutako istilu larriekin lotutako beste bat; baita Bilbon eta Barakaldon kaleko terrorismoarekin lotura zuten beste bi ere.

Azken hil hauetan Ertzaintzak burutu duen zereginik nagusienetako bati esker, ETA erakunde terroristari eragotzi zaio bere jarduera kriminala egiteko prest egon daitezkeen gazteak biltzea. Kale borrokaren aurka egiteko helburua ETaren harrobia zapuztea da eta, horrez gain, atentatuak galarazteko eta kaleko indarkeriarekin loturiko delituak ikertzeko asmoa dago.

Orobat, terrorismoaren aurkako borrokari dagokionez, nabarmentzekoak dira Terrorismoaren Kontrako Zentro Nazionalarekin (CNCA) sinatutako hitzarmena eta Barne Ministerioarekin, Poliziaren Kidego Nazionalarekin eta Guardia Zibilarekin koordinazio-lanak indartzea.

Terrorismoa goretsi edo biktimen oroimena edo duintasuna iraintzeagatik Legea urratzen duten kartelak, pintadak, argazkiak eta pankartak kentzeak gizarte-babes handia lortu du. Horrek adierazten du euskaldun gehienek hori nahi zutela eta espero dutela terroristak heroizat hartu eta biktimak gaitzesten zituen alderantzizko mundu horretara berriz ez itzultzea.

Eta euskal udalei esker posiblea izan da zigorgabetasun-espazioak desagerrarazteko politika horrek emaitza onak erdietsi izana (aurten, 2010ean, % 35 kartel eta pintada gutxiago kendu da), Sailak bultzatu eta udalek gauzatutako beste ekimen batzuen moduan, hala nola, jaietan txosnak jartzeko ordenantzak.

Gainera, erantzun horren osagarri Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren jarduerak izan ditugu. Zuzendaritza horrek, erakundeen lankidetzaz zabalaz, zenbait ekimen sustatu du, esate baterako, Oroimenaren Mapa eta Memoriaren Eguna. Horrez gain, Terrorismoaren Biktimen Partaidetza Kontseilua martxan jarri du eta Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatzeke Planean lan handia egin du.

3.3. PLANTILLA OSORIK

Gobernu-aldaketa gertatu zenetik, Herrizaingo Sailaren helburu nagusietako bat Ertzaintzan 8.000 kideen kopurura iristea izan da, Lanpostuen Zerrendan jasota baitago. Kopuru hori Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Batzordeak

2004ko azaroan ebatzi zuen; hain zuzen, gaur arte lortu ez dena, baina 23. promozioa kalera irtetean beteko dena.

2009ko maiatzean Ertzaintzak kopuru hori baino 260 kide gutxiago zuen eta; 60 urte betetzean erretiroa hartzeko akordioak akuilatuta, plantilla gaztetzeko prozesu bati ekin behar zion. Ertzainek neurri hori aspalditik ari ziren eskatzen eta hari esker, herritarren eskariei erantzuna emateko Polizia prestatuago bat izatea ahalbidetuko da.

Lehenengo neurria, beraz, izan zen 306 plaza betetzeko 22. promozioa Euskal Herriko Polizia Ikastegian sartzeko hautaketa-probetarako deialdia egitea. Halaber, Sailaren arduradunek promozioak "gainjartzeko" sistema bat diseinatu zuten; halako moldez non, Arkauteko Ikastegian promozio batek pretakuntza-prozesua burutzen duen bitartean, hurrengora sartzeko probak egiten ari diren, 140 plaza betetzeko 23. promozioarekin gertatu den bezala.

Estrategia horren oinarriko helburua 8.000 agenteen kopurura iristea da eta, aldi berean, erretiroak konpentsatzeko sartzen direnen kopuru nahikoa izatea, zeren Ertzaintzaren adin-piramideagatik hurrengo urteetan nabarmen gehituko baitira.

Ertzaintzan sartzeko urtero promozio berri bat abian jarriko da, era horretan gertatzen diren bajak, erretiroak eta Bigarren Jarduerara igaro izanak betetzeko. Horren bitartez une oro jardunean 8.000 agente egotea lortu nahi da.

3.4. TRAFIKOKO POLITIKA BULTZATZEA

Ertzaintzaren Trafiko Atala, erakunde maila handiago hori hartu baitu, modu erabakigarrian inplikatu da gai horretan Sailak duen politikan eta indarrean dagoen Bide Segurtasunerako Planean adierazitako helburuak lortzeko: errepidean biktima-kopurua murriztea, arrisku-taldeen arabera istripu-kopurua gutxitzea eta mugikortasun segurua sustatzea.

Berrikuntza teknologikoek ahalbidetzen dute gaur egun zehapenak errepidean bertan ordaintzea eta kanpoko 51 hizkuntzatan atzerritarrentzako itzulpen-zerbitzu bat martxan jartzea. Trafikoko agenteek erraz ikusteko moduko jantzi berriak dituzte eta lanean ari gara Bergaran, Gipuzkoan, Trafikoko azpiegoitza bat irekitzeko.

Prestakuntzari dagokionez, 190 agenterentzat eta 27 agente lehenentzat Bide Segurtasuneko ikastaroa martxan jarri da

Trafikoko gaietan ere ezinbestekoa da beste administrazio batzuekiko koordinazioa. Helburu horrekin, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiarekin (DGT) lankidetzaren areagotu egin da informazio-trukea aurreikusten duen hitzarmen bat sinatuz. Trukatuko den informazioa da Trafikoa Kontrolatu eta Kudeatzeko Sistemen bidez edo zirkuitu itxiko kameretako irudien bidez lortzen dena. Era berean, trafikoko datu, datu meteorologiko eta seinale aldagarrien paneletako mezueterako irispidea izateko elkarri lagunduko diote.

3.5. GENERO INDARKERIA

Gobernuak genero-indarkeriaren kontra duen politika koordinatzeko eta biktimei laguntzeko Herrizaingo Sailaren mendean egongo den Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza sortu da.

Ertzaintzatik bultzatzen ari dira arreta eta babesa eskaintzeko eta indarkeria matxistaren gaitzari aurka egiteko neurri guztiak. Adierazi behar da 2009an zehar 1.542 jarduketa burutu zituela etxeko indarkeriarekin eta/edo sexu-askatasunaren kontrako delituekin lotutako urratzeren bati berehala erantzuna emateko, non emakumea biktima zuzena baitzen.

2009an gauzatutako babes-neurriei eta, horien baitan, prebentzio-jarduera zorrotzari (oinezko zaintza, autoetakoa, lekualdatzeak...) dagokienez, familia-eremuarekin lotutako 101.239 jarduera jaso dira.

2010eko lehen lau hilekoan, genero-indarkeriaren biktima ziren 30 emakumek, guztira, beren babeserako etengabeko eskolta zuten, zortzik GPS gailua zuten (eskumuturreko bilagailua) eta genero-indarkeriaren biktima ziren 166 emakumek Bortxa telefonoa zuten Ertzaintzarekin zuzeneko komunikazioa izateko.

3.6. LANEKO ARROPA

Polizia-lanak egiteko uniforme operatiboagoa eta seguruagoa eta, aldi berean, bere erabiltzaileak diren profesionalei erosotasun handiagoa ematen dien uniforme bilatzea Ertzaintzako eta Herrizaingo Saileko arduradunek jarritako helburuetako bat izan da, era horretan agenteen artean hedatutako eta beraiek egindako zentzuzko eskari bati erantzuna emateko.

Azken urteotan ehungintza-industrian izan diren aurrerapen teknikoak eta babesa handitzeko materialen garapena, esaterako, suaren kontrako arropa edo arropa hidrofugoa, uniforme berrietan ere aplikatu dira. Armen uhaleriek eta zorroek segurtasuna hobetzen dute, baita erabilgarritasuna ere ertzainen aldetik.

Aldaketak bereziki onuragarriak dira patruiliarientzat, laneko arroparen irudia berrituta, segurtasuna hobetuko delako. Bulegoko eta galako uniformeei ez zaie aldaketa handirik egin, zeren berriztapena bakarrik beharrezkotzat jotako aldeetan egiteko asmoa egon baita. Uniforme berrien bitartez, gainera, argiago bereizten da Ertzaintzako profesionalek beren jarduera egiten duten lan-eremua.

Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordea uniforme berrien ezaugarriak zehazteaz arduratu da, irizpide teknikoak kontuan hartuz eta segurtasunean arreta berezia jarritz. Arlo horretan nabarmendu behar da balen kontrako txalekoa dotazio ofizialari gehitu zaiola eta, ondorioz, ertzainek ez dute beren kontura segurtasun-elementu hori eskuratu beharko, gainera geroago diru-

konpentsazioa eskatzeko. Txalekoa aldiro berrikusiko da beharrezko babes-mailak mantentzen dituela ziurtatzeko.

Laneko arropa eta materialarekin lotutako beste jarduera batzuk ikurrina Ertzaintzako ibilgailu eta uniforme guztietan jartzeko zuzendu dira.

3.7. POLIZIA ETA LARRIALDI IKASTEGI BERRIA ETA BERE PRESTAKUNTZA PLANA

2009ko maiatzean Euskal Herriko Polizia Ikastegiaren egoerari buruz egin zen azterketak agerian utzi zuen barneko eta kanpoko gabezia garrantzitsuak zituela. Gabeziak antolakuntza- eta kudeaketa-arloetakoak ziren; hala nola, gabeziak segurtasun publiko eta pribatuan eredugarri diren beste akademia, institutu edo erakunde batzuekiko irekitasun eta harremanaren inguruan.

Halaber, pentsatu genuen Ikastegia; bere eginkizunak ertzainen eta udaltzainen hautaketa, prestakuntza, sustapena eta birziklapena izan arren, gai zela Babes Zibilari eta Larrialdiei loturiko persona guztien prestakuntza bere gain hartzeko, baita segurtasun pribatuko agenteen prestakuntza eta birziklapena ere.

Horregatik, Euskal Herriko Polizia Ikastegiarentzat hiru ardatz estrategiko ezarri ziren. Hona hemen: Polizia Ikastegiaren berregituraketa; Prestakuntza eta Gaikuntza Plana eta irakasteko metodoen ikerketa eta modernizazioa.

Alde horretatik, antolaketan eta kudeaketan sakontzen diren lan-ildoak lantzen ari dira; besteak beste, beharren azterketa eta sekzioen eta irakasleen egokitzapena; hautaketa-prestakuntza eta jarraipen prozesuen berringeniaritza; tresna administratiboen eta prestakuntza-planifikazioaren hobekuntza; Zuzendaritza Kontseilua abian jartzea eta Irakasleen Klaustroa.

Beste alde batetik, prezio publikoen dekretua ezartzeko, Ikastegiak orain arte izan ez duelako, eta diziplina- eta barne-jarduerako erregelamendua eguneratzeko lanak hasi dira.

Eraldaketa Ikastegiko instalazioetara ere iritsiko da. Dagoeneko teknologia berrien horniketa egin da; hala nola, wi-fi sarea, ikasleentzako sarbide informatikoa, etab. Horiez gain, Ikastegiarentzat behar-beharrezkoak diren instalazioak modernizatu dira; adibidez, lur-gaineko hiru tiro-pistak, balistika-laborategia eta gaueko tiro-eremuak. Gainera, Ikastegiaren berriztapen integrala egiteko beharrezko azterlan teknikoak lantzen ari dira, instalazio nagusiak oso hondatuta baitadue, bereziki Erdialdeko Eraikinak; non ikasgelak, logelak, ostalaritzako lokalak, liburutegia eta ekitaldi-aretoa dauden.

Bigarren ardatz estrategikoa, eta azken finean Ikastegiaren ardatz nagusia, Prestakuntza eta Gaikuntza Plana da. Plan hori modu integralean dago antolatuta: sarrera, igoera, espezializazioa eta egunerapena eta hobekuntza.

Ertzaintzari eta sarrera-promozioei dagokienez, Ikastegia lanean ari da promozioak etengabe martxan jartzeko Sailaren beharrei aurre egiteko. Ertzaintzako karrera profesionalaren azterketa lantzen ari da eta, aldi berean,

komisario-kategoriarako deialdia abian jarri da, ofizialena eta agenteena gertu daudela. Era berean, goi-eskalarako eta egiterapen-eskalarako gaitze-ikastaroak egingo dira.

Espezializazioaren inguruan, planteatutako premiek arreta jarri dute lehergailu arloko espezialisten, eskolten eta bide-segurtasuneko espezialisten gaikuntzan. Hiru ikastaro ahalegin handiak bereganatzen ari dira: herritarren segurtasuneko egunerapena, arma laburraren aldaketa eta eskopeta erabiltzeko prestakuntza.

Lantzen ari garen beste ildo garrantzitsu bat euskalduntzeari buruzko guztia da. Martxan jarri den dinamikaren bidez Ertzaintzako hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko bi deialdi egongo dira.

Irakasteko metodoak ikertu eta modernitzatzeko ildo estrategikoari begira, nabarmentzen dira teleikaskuntzarako Plataforma, edo e-learnig, eta Ertzaintzaren lerro editoriala garatzeko lan-ildoak. Ez da ahaztu behar Estatuko edo nazioarteko beste akademia batzuekiko lankidetzaren garrantzitsua dela.

Ikastegian egindako aldaketek agerian uzten dute Ikastegiak helburu eta egiteko gehiagori aurre egin ahal diela. 2011n zehar aurreikusten dugu Ikastegitik 15.000 ikasle igaroko direla. 2010ean 12.000 inguru igaro dira eta 2009an 5.283 pertsonak prestakuntza jaso zuten.

2008an Arkauten 175 euskara-ikastaro egingo dira eta 119 azterketa, eta hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko azterketa bat ere ez. Aurten 364 ikastaro egin dira, mailako 219 azterketa eta hizkuntza-eskakizunerako 224 azterketa. Urte honetatik aurrera, urtero hizkuntza-eskakizunerako bi deialdi programatuko dira.

4. ERTZAINZA BERRANTOLATU ETA MODERNIZATZEKO PROPOSAMENAK

Jarraian biltzen diren proposamenen jomuga nagusia herritarrei segurtasun-zerbitzu hobea ematea da, era horretan euskal gizartearen eskubideak eta askatasunak bermatzeko asmoz.

Proposamen hauek Ertzaintza berrantolatu eta modernizatu nahi dute, horretarako bere baliabideak hobeto aprobetxatuz eta bitartekorik aurreratuenez zuzkituz, betiere aurrekontu-aukeren arabera. Azken xedea gizarteari hurbiltasun-zerbitzu eraginkorrago, hurbilago eta erabilgarriago bat ematea da.

Neurri hauek modu irekian aurkezten dira, eta beraiek zehaztu eta garatzeko lehenago udalekin, sindikatuekin eta alderdi politikoekin negoziatuko da. Neurriak aplikatzeko ezinbestekoa da adostasun instituzional, politiko eta sozialik handiena; zeren, besteak beste, neurri horietako askok Gobernu honen agintaldia gaindituko baitute. Gehienak epe ertain eta luzerako dira.

Kapitulu honetan jasotzen diren ekintza guztiak Ertzaintzako agintariekin kontrastatu dira. Batzuek erreferentziatzen hartu dituzte gure inguruko beste polizia batzuen ereduak eta antolamendua, eremu konparagarrietan eraginkorrak direla agerian utzi duten esperientzia batzuk aplikatzeko helburuarekin.

Jarraian berrantolaketa eta modernizaziorako proposamenak azalduko dira, herritarraren eta polizia-erakundearen arteko harreman-biderik funtsezkoenetatik ordenatuta, era horretan ondoren gure Ertzaintzaren egituraren gero eta konplexuagoak diren goragoko mailak ukitzen dituzten arloei ekiteko.

4.1. ARRETA HOBEA BALIABIDE TELEMATIKOEN BIDEZ

Ertzaintzak herritarrei eskaintzen dien arreta informazio- eta komunikazio-teknologiek ematen dituzten tresna indartsuekin hasten da. Izan ere, plan honek proposatzen duen ereduak, telefono bidezko komunikaziotik haratago edo Internet bidez, etorkizunean salaketak aurkeztu edo era guztietako izapideak egiteko aukera aurreikusten du sinadura elektronikoa erabiliz.

Helburua ez da inola ere agenteak tresna informatikoekin ordezkatzea, baizik eta informazio-teknologiaren aurrerapenak komunikazioa errazteko baliatzea. Ertzainak, gainera, gizarte-sareetarako hurbilketan sakondu beharko du herritarren eskariak atzemateko.

Alor horretako esperientzak oso positiboak dira. Terrorismoaren aurkako web-orria eta arreta-telefonoa oso ondo aritu dira.

Era berean, telefono eta Internet bidez salaketak jartzea oso eraginkorra dela ikusi da egintza hauen kasuan: ibilgiletan indarra erabiliz egindako lapurreta, dokumentuen lapurreta, bizileku eta estabzimenduetan egindako lapurreta, indarrezko tiratzeak, dokumentu eta efektuen galera, maulak edo kalteak.

Orobat, beste polizia-kidego batzuetan SMS mezuen bidez polizia-zerbitzu bat eskatzea ahalbidetzen duten sistemak garatu dira. Bulego birtual deitutakoek bideratzen dituzte herritarrek laguntzeko asmoz egiten dituzten ekimenak interes polizialekoa izan daitekeen edozein gertakariri buruz; gainera, bulego birtual horiei esker erreklamazioak, iradokizunak eta eskerrak emateko mezuak aurkez daitezke.

Hiritarrek gure poliziarekin dituzten harremanen atalean telefono bidezko arreta indartzeko asmoa dago zerbitzua erabiltzen duten guztiei euskaraz, gaztelaniaz edo beste hizkuntza askotan erantzun dakien. Ertzaintzak berriki atzerritarrentzat ezarritako izulpen-zerbitzua bezalako esperientziak kontutan hartuta, agerian dago arlo honetan hobekuntza-aukera handiak daudela.

4.2. ERANTZUTEKO GAITASUN HANDIAGOA DUTEN PATRUILAK

Premiazkoa da herritarrekiko zuzeneko harremanetan dagoen hurbileko polizia sustatzen jarraitzea, gizarte moderno eta demokratiko baten segurtasun-eskariei erantzuna emateko lurraldean presentzia handiagoa duena.

Zentralarekin soilik emisoreaz konektatuta dagoen polizia-patruilaren irudia iraganeko kontua da. Ertzaintza eredu desberdin batera eboluzionatzen ari da, non teknologiak erantzun arinago eta hurbilago bat emateko funtsezko papera betetzen duen.

Komunikazio-softwarean 2010ean sartutako hobekuntzei esker, kalean agenteek pertsona eta ibilgailuei buruzko informazioaren berri berehala eta zuzen jakin dezakete. Berrikuntza teknologiko horrek goitik beherako aldaketa ekarri duen arren, alor honetako aukerak biderkatuko dira patruila-auto bakoitzean datu-base polizialekin konektatutako ordenagailua jartzen denean.

Hurrengo urteetan Ertzaintzako ibilgailuak berriztatuko ditugu. Ibilgailu berriak etorkizunean ekipamendu telematiko eta informatikoez hornituta egongo dira herritarrei arreta hobea eskaintzeko; hala nola, grabatu eta irudiak jasotzeko sistemak; matrikula-irakurgailu automatikoak, lapurtutako ibilgailua den detekta dezakeena; hatz-marken irakurgailua eta GPS gailuaren bidez kokatzeko sistema.

Patruilek jasoko duten informazioa, agenteen zuzeneko esku-hartzea behar izanda edo behar izan gabe; delitu-mapak egiteko, istripuak prebenitzeko edo beste erabilera polizial batzuetarako baliatuko da.

Era berean, patruilek herritarren salaketak “in situ” izapidetu ahalko dituzte, era horretan herritarrek kasu gehienetan ertzain-etxera joateko beharrik izan ez dezaten.

Ertzaintzako Helikopteroen Unitatea era partekatuan eta koordinatuagoan kudeatu nahi dugu, Osakidetzarekin bitartekoak optimizatzeko eta gure Poliziari baliabide material modernoagoak emateko.

4.3. HERRITARREI ARRETA EMATEKO BULEGOEN SAREA BULTZATZEA

Herritarrei arreta emateko bulego-sare bat ezarri nahi da herritarrei zerbitzua hurbiltzeko; hain zuzen, komisarietako distantzia, biztanleria edo delitu-tasa direla eta, hala eskatzen duten udalerrietan.

Une honetan, Ertzaintzaren egituraren barruan badaude herritarrei arreta emateko bulego batzuk. Alabaina, kopurua handitu eta beraiei paper garrantzitsuagoa emateko asmoa dago.

Bulego horiek jartzeko hiru kokaleku mota hartzen dira kontuan:

- **Herriguneak.** Irekitzeko erabakia udalekin adostuko da, espazioak lagatzea posiblea den zein arreta emateko beharrak aztertzeko. Gainera, udaltzaingoekin koordinaziorik handiena bilatuko da. Arreta emateko bulego berriak kokatzeko irizpide batzuk hartuko dira kontuan: komisarietako hurbiltasuna, eskualdeko delitu-indizeak, hurbileko herrietako biztate-kopurua edo errepide bidezko desplazamenduak egiteko erraztasuna. Hiri handietako auzoetan ere kokatuko dira, Bilbon eta Gasteizen daudenen antzekoak.
- **Espazio pribatu edo publikoak.** Etengabe pertsona ugari biltzen dituzten lekuak dira, merkataritza-guneak esate baterako. Kasu honetan ere espazio horien kudeatzaileekin adostasuna bilatuko da eta, gainera, aurreko paragrafoan adierazitako irizpideak aintzat hartuko dira.
- **Herritarrei arreta emateko bulego mugikorak.** Hain zuzen ere, gertaera jendetsuei edo kaltetu asko biltzen duten gertakariei arreta emateko. Bulego mugikorrek, esaterako, zerbitzua eman ahalko dute jaietan, kirol-ekitaldietan edo urtaroko biztalaria-hazkuntza nabarmena duten kostako eremuetan.

4.4. KOMISARIEN MUGAKETA BERRIA

Gaur egun, Ertzaintzak 25 komisariaren bidez ematen du zerbitzua. Horietako 11 Bizkaian daude, beste hainbeste Gipuzkoan eta gainerako hirurak Araban. Ertzain-etxeak dira, beren erreferentzia-lurraldean prebentzio-lanak egin daitezten, baliabideak banatzeko guneak. Beraietan zenbait ikerketa-jarduera egiten dira eta herritarrei zuzeneko arreta ematen zaie.

Komisarien lurralde-mugapena orain dela 20 urte landutako diseinu batetik dator. Demografian izandako aldaketak, azpiegiturak, hirigintza edo gizarte-ohiturak direla medio, dokumentu honetan aztertu baitira, beharrezkoa da birplanteatzea.

Jarraian, komisarien lurralde-mugapenaren proposapena azaltzen da. Egokitzapena eta garapena progresiboki egingo dira, mendekotasun judiziala negoziatu ondoren. Etorkizunean, beharrezkotzat jotzen den neurrian, aldaketak sartu ahalko dira.

Erabaki hauek, edozein kasutan, baliabideak hobeto erabili eta erantzun-denborak gutxitzeko hartuko dira. Gure iritziz, garrantzitsua da lurraldeko edozein tokitan bizi diren herritarrei, berehalakotasunari dagokionez, gutxieneko kalitate-mugatik gorako polizia-arretarako zerbitzua eskaintzea

Bikaian, Mungia eta Maruriko udalerrriak, lehen Gernikako ertzain-etxearen patruilatze-eremuari zegozkionak, Erandioko lurralde-eremuan sartzea proposatzen da.

Lemoiz, Gatika eta Laukizko udalerrriak, Gernikak menpe hartzen zituenak, Getxoko ertzain-etxearen eremuan sartzea proposatzen da; baita Leioako udalerrria ere, Erandioko ertzain-etxearen menpe baitzegoen.

Alonsotegiko udalerrria Sestaoko patruilatze lurralde-eremuan sartzea proposatzen da, orain arte Balmasedaren menpe baitzegoen.

Araban, Gaubea Gasteizko ertzain-etxearen lurralde-eremuan sartzea proposatzen da, Laudioen menpean egoteari utzita.

4.5. ZUZENDARITZA ETA KUDEAKETA TALDEEN BATZERATZEA HIRI JARRAIKORTASUNEN EREMUETAN

Ditugun datuekin eta urteotan pilatutako esperientzia kontuan hartuta, ertzain-etxe batzuetako zuzendaritza- eta kudeaketa-taldeak eskualdeka eta jarraikortasuneko eremuan arabera bateratzea proposatzen da.

Komisaria baten ohiko funtzionamenduan zuzendaritza- eta kudeaketa-lanetan hogeit bat ertzain aritzen dira. Beraz, zenbait zentrorentzat, aginte- eta laguntza-egiturari dagokionez, kudeaketa bateratua proposatzen da.

Neurri hau inplikaturako udalekin eta ertzainen ordezkariekin izandako informazio- eta kontsulta-prozesu baten ondoren gauzatuko da.

Ez dago gaurko komisariak ixteko inolako asmorik. Kanean jende gehiago egon dadin baliabideak optimizatu nahi ditugu, era horretan eremuotan patruilak modu eraginkorrago batean kudeatzeko eta herritarrei zerbitzu hobea emateko.

Aldaketa hauek ertzainek eskuratutako eskubideak errespetatuz burutuko dira eta, edonola ere, modu progresiboan ezarriko da, proposatutako aldaketen eta beren barne- eta kanpo-eraginaren garrantzia dela eta.

Helburu hau lortzeko, ondoko komisarien kudeaketa eta zuzendaritza partekatzea proposatzen da:

Bizkaian, Galdakao eta Basauri; Ondarroa eta Gernika; eta Muskiz eta Sestao.

Gipuzkoan, Azkoitia eta Zarautz, eta Beasain eta Zumarraga.

4.6. UDALTZAINGOEKIKO KOORDINAZIOA

Udaltzaingoen eta Ertzaintzaren artean kooperazio operatiborik handiena eta datu- eta informazio-trukea sustatu nahi ditugu. 2011n 8.000 ertzain izango ditugu eta udaltzainak 3.000 baino gehiago izango dira. 11.000tik gorako agente-kopurua duen hedapen hau herritarren seguratasunaren beharrak betetzeko nahikotzat jotzen dugu, baldin eta koordinazio operatiboak eta datu- eta informazio-trukeak ondo funtzionatzen badute.

Euskadin koordinazioa aztertzeko premiazkoa da udaltzaingoetan izan den polizia-hazkuntza, beren prestakuntza eta udalerrri handietan bereziki bereganatzen joan diren zereginak kontuan hartzea.

Euskal Autonomia Erkidegoan udalen menpe 78 polizia-kidego ditugu eta ez dute ezaugarri homogeenorik. Alde batetik, tamaina handiko egiturak daude, estate baterako, Bilbon (700 udaltzain), Gasteizen eta Donostia (300 baino gehiago) eta; bestetik, 67 udaltzaingotan 50 agente baino gutxiago daude.

Egun badira koordinaziorako akordioak, baina beharrezkoa da beroriek indartu eta hobetzea, komunikazio-sistemak sare bakarrean konektatuz eta datu-baseak partekatuz.

Horrez gain, kontuan izan behar dugu 53 udaltzaingotan 20 agente baino gutxiago daudela eta, ondorioz, udalerrri handietako udaltzaingoek beren gain hartutako egiteko asko ezingo dituztela bete.

Posiblea den tokian agente- eta kontrol-zentro bateratuen bidez koordinazio operatiboa hobetzea proposatzen dugu, baita komunikazio-sistemen berriztapena baliatzea ere. Udalerrri askotan komunikazio-sistema horiek sistema analogikotik digitalera igaro behar dute, modu horretan udaltzaingoek Herrizaingo Saileko TETRA sisteman era progresiboan sartzen jarrai dezaten; zeren horri esker, ahots-sistemekiko konexioa ez ezik, udaltzaingoen artean eta udaltzaingoen eta Ertzaintzaren artean datu-sistemekiko konexioa ere egin ahalko den.

Udaltzaigoak Ertzaintzaren datu-baseetan zuzen sartu ahal izango dira, bereziki personak eta ibilgailuak identifikatzeko eta adostu daitezkeen beste gai batzuetarako. Gainera, ahalegindu beharko dugu datu-base eguneratu eta

partekatu bat izateko polizia bakoitzak bete behar dituen zereginetan eraginkorragoak izan gaitzen.

Helburu horiek erdiesteko akordioa eta elkarrizketa nahitaezkoak dira eta; horregatik, Eudelekin batzorde bat sortzea proposatzen dugu, eta beste bat hiru hiriburuetako bakoitzarekin, modu horretan datu-base bakarrak, komunikazio-ekipo partekatuak eta lurralde- eta funtzio-mugapena bermatzen dituzten beharrezko akordioak lortzeko.

4.7. BALIABIDEEN OPTIMIZAZIOA ETA BERRANTOLAKETA BENETAKO LPZ BATEN BITARTEZ

Plan honen funtsezko helburuetako bat plantilla era egonkorrean 8.000 ertzainekin osatuta egotea da, 2004ko azaroan Euskadiko Segurtasun Batzordean adostu zen bezala.

Akordio hori egon arren, egia da agente-kopuru horretara iristeko beharrezko neurriak ez zirela abian jarri gobernu berria heldu arte. Izan ere, gobernuak 22. promoziorako deialdia egin zuen eta, hilabete batzuk geroago, 23.erako deialdia. Horrek 2011n zehar jardunean 8.000 ertzain egotea ahalbidetuko du.

Herrizaingo Saila absentismo-indizeak murrizteko lanean ari da, baita egun libreetan laneratzeko ertzainei egiten zaizkien deien kopurua eta beren lanaldiluzapenak txikiagotzeko ere. Bestetik, baliabideen arrazionalizazioari zenbait ikuspuntatik heldu zaio, era berean agenteen lan-baldintzak hobetzeko helburuarekin.

Ertzaintzaren eraginkortasuna hobetzeko helburuen artean, gainera, burokratizazioa gutxitzea dago. Hori dela eta, prozedurak birpasatzea proposatzen da; hain zuzen, barneko kudeaketak eta polizia-jardueraren beharrezko kontrolak errezagoak izan daitezten.

Orobat, ertzain-etxeek landutako zerbitzuak gertaera bereziengatik distortsiorik izan ez dezan lanean ari gara. Jardun-ildo horri jarraituz, Herritarren Segurtasuna Indartzeko Brigada abian jarri da aparteko egoera horiei aurre egiteko. Gainera, laster 141 agente izango ditu.

Gure helburu nagusia polizia-zereginetan, egoera fisikorik onenean eta prestakuntza-mailarik hoberenekin, beti 8.000 ertzain izatea. Hurrengo urteetan bete beharko diren bajen kopurua, ohikoa zenaz bestela, bikoiztuko da eta hamarkada honen bukaeran bostez biderkatuko da. Gauzak horrela, 20 urtetan gaur dugun ertzain-kopuruaren antzeko erretiro-kopurua (7.560) lortuta izango dugu, eta egungo plantilla osoaren berriztapena eginda egongo da.

Hurrengo urtean zehar, eta ondoren urtero, Ertzaintzaren lanpostuen zerrenda berria prestatuko da. Haren bitartez, ertzain-etxeetan eta unitateetan baliabideen benetako banaketa ezarriko da; betiere lan-karga, delitu-kopurua eta delitu horien sailkapena, biztanleria eta lurraldea oinarritzat harturik.

Bigarren jarduera

2010eko urtarriletik ertzainek 60 urte betetzean erretiroa har dezakete eta lan-hitzarmenean araututa dago 58 urtetik gorakoek gauean ez patruilatzea. Gainera, osasun-arazorik baldin badute, Gizarte Segurantzaren epaimahaira jo ahal dute Erabateko Baliezintasuna edo Baliaezintasun Iraunkorra eskatzeko. Hori guztia izanda ere, irizten diogu Ertzaintzan beharrezkoa dela Bigarren Jarduera arautzea, sindikatuekin negoziatu ondoren. Horretarako, proposatzen dugu eguneroko lan poliziala egiteko eragozpenak dituztela uste duten eta Gizarte Segurantzaren bideari jarraitu nahi ez dioten ertzainek Ertzaintzako Epaimahai Medikotik igarotzea; era horretan, baldin eta ohiko zerbitzua egiteko dituzten mugak gaindiezinak badira, bigarren jarduerari dagozkion zereginak bete ditzaten.

Azken atal hau dela eta, esan behar da urtero berariazko lanpostu-zerrenda bat onartuko dela. Bigarren jardueran dauden agenteek nagusiki beren lana eraikinak eta unitateak zaintzen beteko dute edo herritarrei arreta emateko bulegoetan edo; bestela, laguntza- edo administrazio-zereginak, Polizia Ikastegian iralaslak edo adostu ahal diren beste egiteko batzuk burutuko dituzte.

Ertzaintzako giza-baliabideak zenbatzerakoan, bigarren jardueraren barruan dauden agenteak ez dira 8.000ko kopuruan sartuko; zeren, haiek egongo ez balira, bereganatu dituzten lanak poliziak ez diren langileek beteko bailituzkete.

Administrazio-zereginen azterketa eta bere aplikazioa

Gure poliziaren lanak administratiboak eta kudeakerako diren laguntza-zeregin ugari behar ditu; hain zuzen, bigarren jardueran dauden agenteek edo poliziak ez diren langileek zerbitzuaren kalitatea inola ere murriztu gabe egin ditzaketanak.

Administratiboak edo Kudeaketan Laguntzeko diren Lanpostuei buruz Herrizaingo Sailak egindako azterketak adierazten du izaera administratiboa duten berrehun lanpostu baino gehiago daudela, horien zeregin zati bat Bigarren Jarduerakoa den edo poliziala ez den pertsonalak egin baitezake.

Azterlan honen ondorioetarako, lanpostu administratibotzat jo ditugu honako funtzio eta lan hauek betetzen dituztenak: dokumentazioaren kudeaketa, informazioaren lekualdaketa, gaien izapidetza (zitazio judizialak, diziplina-prozedurak, baimenak, lizentziak, gastuak, kodeen izapidetza, matrikula erreserbatuak, trafikoko isunak, deialdiak,...) idazkiak egitea, ekipamenduen kudeaketa, jendearentzako arreta (aurrez aurrekoa, telefonoz, kexak, salaketak jasotzea,...) informazioa, segurtasuna sarrerak mantentzeko lanak.

Zehazki, Ertzaintzaren eta Herrizaingo Sailaren instalazio batzuen zaintza eta segurtasuna bazeuden segurtasun pribatuaren ardurapean (Erandioko makrokomisaria, Arkauteko Ikastegia...). Izaera sinbolikoa edo instituzionala duten beste eraikin batzuk ertzainek babestuta daude (Ajuria Enea, Eusko Legebiltzarra, Batzar Etxea).

Proposatzen dugu plan bat prestatzea eraikin sinbolikoak zein Ertzaintzaren eraikinak lehentasunez bigarren jardueran dauden ertzainek zaintzea ahalbidetzeko. Hori posiblea izango ez balitz, Ertzaintzak jarraituko luke eraikin sinbolikoak zaintzen eta gainerako instalazioen zaintza, aldiz, pertsonal pribatuak egingo luke.

4.8. CALL CENTER 112

112 telefonoaren bidezko larrialdi-deiak jaso eta kudeatzeko hiru zentroek une honetan 70 bat ertzain dituzte hiru lurraldeetan banaturik. LAZLZeko (Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Zuzendaritzaren Laguntzarako Zerbitzua) operadoreak dira, egun hiru lurralde historioetan beren jarduna betetzen baitute.

Zerbitzu honek 2011n zehar, deien jasotzeari dagokionez, zentralizazio prozesu bati ekingo dio eta, aldi berean, orain zentro horietan lan egiten duten hainbat ertzain poliziak ez diren langileek ordeztuko dituzte.

Behin poliziala ez den pertsonala Arkauteko Ikastegian prestakuntza jasoz gero, kalkulatu da posiblea izango dela zifra hura % 65era jaitea, baina erabaki operatiboen azken arduraduna beti Ertzaintzako profesional bat izango dela kontuan hartuz.

Dena den, LAZLZeko ertzainen ordezpena akordio bidez eta modu progresiboan egingo da eskuratutako eskubideak errespetatzeko.

4.9. IKERKETA LANEN ANTOLAKETA BERRIA

Ertzaintzak egun bi mailatan antolatzen du ikerketa. Lehenengoa, zentralizatua, unitate oso espezializatuetan dugu; bigarrena, ordea, herritarrekiko harreman zuzenari lotua, ertzain-etxeetatik burutzen da.

Euskadin dugun delinkuentziaren egungo errealitatea eta jarduera kriminalaren joera berriak (delitu informatikoak, ekonomikoak, ingurumenari loturikoak, banda espezializatuak edo krimen antolatua) direla eta, gomendagarria da ikerketa-maila horiek berrantolatzeko prozesu bati ekitea. Kontua da jarduera kriminalari aurrea hartu eta arrakasta-berme gehiagorekin hari gogor egiteko laguntzen duen aurreraeraginezko ikerketa bultzatzea.

Ertzaintzan ikerketa kriminalak bere antolamenduan eta espezializazioan bultzada izango du hiru maila hauen bidez:

- Oinarrizko mailako ikerketa komisarien ardurapean egongo da.
- Ikerketa-maila espezializatua Herritarren Segurtasunaren Atalaren eta Krimen Gaietarako Poliziaren Atalaren zerbitzu koordinatuen tokiz gaindiko kudeaketan hasten da.

- Delituen berezitasun maila-handia Krimen Gaietarako Ataleko unitate zentralen ardura izango da, ikertzaile oso espezializatuak behar baititu.

Eskema honetan, ertzain-etxeek titular eta eskudun izango dira jarduera batzuen inguruan; hala nola, herritar, biktima eta lekukoentzako arreta; salaketak jasotzea eta egitateen egiaztapenak; txostenak eta Herritarren Segurtasunaren Legeko espedienteak egitea; bide-segurtasunaren kontrako delituengatiko atestatuak egitea; ofizio judzialentzako erantzunak; atxilotuen tratamendua eta zaintza; atxilotuen ezaupideak egitea, etxeko indarkeria eta genero-indarkeriagatiko atestatuak; ikerketa erraza behar duten falta eta delituei buruzko atestatuak; delitua izan den tokiko begi-ikuskapen jakin batzuk, froga-elementuak bilatzea eta babesteko zereginak; eta prestakuntza tekniko espezializatua behar ez duten beste egiteko batzuk.

Tokiz gaindiko taldeen eskumenekoak dira delituen ikerketa-jarduerak estadorik konplexuenetan, baliabide tekniko eta giza- baliabide espezializatuak eta zabalak behar direnean.

Hirugarren mailan, Krimen Gaietarako Poliziaren Atalak delituez arduratuko da beren larritasuna, konplexutasuna edo izaera direla-eta espezializazio-maila handia behar dutenean. Halaber, Epaitegiei atxikitako Polizia Judiziala maila honen partaide izango da.

4.10. BALIABIDE GEHIAGO ETA BURUZAGITZEN ERANTZUKIZUNA

Ertzaintzan ezarritako kudeaketa-ereduak, polizia-zereginak eta giza-baliabide eta baliabide teknikoen kudeaketa bereizten baitu, zuzendu behar diren disfunzio batzuk eragin ditu. Alde horretatik, komisaria edo unitate bakoitzeko burutzak zuzendaritza funtzionala bereganatzea proposatzen da bere baliabide guztiak, ertzainak zein lan-kontratukoak, kudea ditzan.

Erantzukizun-mailak aginte-egituraren bidez erakundeari berari kontuak ematea ahalbidetzen den moduan zehaztuko dira. Aldaketa horrek berekin agintariak prestatu eta gaitzeko beharrezko jardueren garapena dakar.

Negoziatu ondoren, erantzukizun-plus bat ezartzea proposatzen da, betiere helburuen arabera, baliabideen kudeaketa eraginkorrago bat sustatzeko.

4.11. LANEKO MOTIBAZIOA ETA ABSENTISMOAREN AURKAKO BORROKA

Ertzaintzako giza-baliabideen aprobetxamendu hobe bat ez da lortzen baldin eta, aldi berean, lanean motibazioa areagotzeko eta absentismoaren aurka borrokatzeko neurriak sustatzen ez bada. Helburu hori dugula, sindikatuekin negoziazio-mahai bat martxan jarri da egoera aztertu eta irtenbideak bilatzeko.

Biltzar eratzaillearen ondoren bilera ugari egin dira, eta horietara Herrizaingo Sailak eskatu zaizkion datu guztiak ekarri ditu. Batzordeko kideek, beren aldetik, diagnostikoa egin dute absentismoaren kausei buruz eta, halaber, kausa bakoitzaren eragin-mailari buruz. Horrez gain, absentismoa desagerrarazteko edo bere ondorioak arintzeko neurriak proposatu dira.

Lan-metodo gisa, Batzordeak adostu zuen kausak aztertzea eta soil-soilik aldi baterako ezintasuneko egoerei (aurrerantzean ABE) buruzko ekintzak proposatzea. Segidako eztabaidetan arrazoibide guztiak aztertu eta gero, bi ordezkartzek ABEGatik absentismoaren kausak adostasunez identifikatu zituzten, baita kasu bakoitzean absentismoa ezabatu edo arintzeko har zitezkeen neurriak ere.

Ondorio hauek funtsezko bost epigrafe oinarritzat harturik ateratzen dira. Hona hemen:

- Ekintzak prebentzioaren arloan.
- Absentismoaren datu historikoen azterketa.
- Motibazioa galtzea eragin eta absentismoan zuzeneko eragina izan lezaketen faktoreak
- ABEn kudeaketa.
- Giza Baliabideetarako Zuzendaritzako Langile Arloaren jarduera.

Urtea amaitu baino lehen lortu nahi ditugu gure polizian bajen kontrola indartzeko neurriak dituzten eta, aldi berean, absentismoaren kontrako borroka sustatzeko neurriak bultzatzen dituzten akordioak.

4.12. ATXILOTUEN KUDEAKETA HIRIKO METROPOLI AREETAN

Proposatzen da, betiere Epailtzarekin eta udalekin akordioa lortu ondoren, Bilboko metropoli-arean atxilotuen kudeaketa eta zaintzaren zentralizazioa ezartzea eta, halaber, udaltzaingoek atxilotutakoak zentro horretan hartzea.

Zeregin horiek zentralizatuz gero, atxilotuak zaintzen eta lekualdatzen aritzen diren polizien kopuru handia aurreztu daiteke.

4.13. HERRITARREN SEGURTASUNA INDARTZEKO BRIGADA

Segurtasun-beharrak denboran ez dira modu homogeenan banatzen eta askotan beren gehikuntzak ezin dira aurreikusi. Horregatik, nahitaezkoa da Ertzaintzak, behar den momentuan, herritarrei lasaitasuna ematea ahalbidetzen duten tresnak ezartzea, baina kudeatzen diren baliabideak agortu gabe eta ertzain-etxeak kudeatzeko ohiko sistema distortsionatu gabe.

Egoera horiei erantzuna emateko eta, gainera, egun librean egindako deiak eta lanaldi-luzapenak murrizteko sortzen da Herritarren Segurtasuna Indartzeko

Brigada, bere helburua ertzain-etxeek egiten duten lana indartzea dela. Aurrerago deskribatzen diren funtzioak ditu, baina talde honen jarduketa antolamenduarentzat gain-ahalegina eragiten duten gertaera eta gorabeheretara biberatuta dago. Hortaz, bere jardun-eremua Autonomia Erkidego osoa da.

Zerbitzuak emateko bermea komisariari dagokienez, Herritarren Segurtasuna Indartzeko Brigada denboran zerbitzu homogeen bat egitetik salbuetsita dago, eta horri esker zerbitzuen eskari puntualetan arreta jartzeko malgutasun nahikoa lortuko du.

Hasiera batean aurreikusitako kopurua 200 bat ertzainekoa da. Mugikortasun-arrazoiak kontuan hartuta, bere egoitza jartzeko lekurik egokiena lurretako polizia-zentroa dela deritzogu. Hala ere, zerbitzu-eskariari dagokienez, behin etorkizunean jasoko den esperientzia aztertuz gero, ez da baztertzeko zentro berriak sortzea.

4/1992 Legearen 3. artikuluan jasotako eginkizun orokorrean gain, Herritarren Segurtasuna Indartzeko Brigadak honako egoeretan eta lehentasun-ordena honetan jardungo du:

- Dispositibo berezietan, Goi-mailako Pertsona Ospetsuak Euskal Autonomia Erkidegora bisitaldia egitera etortzeagatik (Errege-etxe Kideak, Espainiako Gobernu-burua, Lehendakaria eta atzerriko herrialdeen ordezkariak...).
- Kirol-ekitaldi berezietan (Lehen-mailako taldeen partidak, ACB, estropadak, txirrindulari-probak...)
- Jendetza handiko jolas- eta kultura-ekitaldietan (Kontzertuak, Kilometroak, Ibilaldia, Herri Urrats, Alardeak...).
- Prebentziozko dispositiboetan gizarte-alarma sorrarazten duten delituengatik, delitu horiek gertatu diren eremua patruilez betez (zonalde bereko gasolindegietan egindako lapurreak, azpiegituretako kableen lapurreak, ibilgailu-erreketa...)
- Udalerri eta eskualdeetako dispositiboetan, urteko garai jakin batzuetan aparteko biztanleria-hazkundera dutenean, bereziki udako hiletan, berekin segurtasun-eskari handiagoa baitakar.
- HSLen aplikazioarekin loturiko dispositiboetan (kontsumoarekiko tolerantzia, armak eramatea...)
- Prebentziozko dispositiboetan jendetza handiko ohiko jolas-esparruetan (legezko edo legez kanpoko substantzia toxikoen gehiegizko kontsumoa dagoen gazte-giroko zonaldeak)
- Manifestazio edo grebarako deialdiengatik ezarritako dispositiboetan.
- Herritarren Segurtasuneko Unitateei laguntzeko, istripuak edo gaixotasuna direla-eta ustekabeko plantilla-murrizketagatik.

4.14. BRIGADA MUGIKORRA

Ertzaintzaren egiturari buruzko Aginduaren arabera, Brigada Mugikorraren berariazko eginkizuna da ordena publikoa aurrezaintzea, mantentzea eta, beharrezkoa bada, arrisku handiko egoeretan berrezartzea; baita istripuak, hondamen edo lazeria publikoa egonez gero esku hartzea ere. Horrez gain, bere eginkizuna ere bada Herritarren Segurtasunaren, Ekintzetarako Baliabideen eta gainerako ataletako unitateei laguntzea, bereziki jendetza-kontrolari, atxilotuen eta preso gatazkatien zaintza eta lekualdatzeari eta planifikatutako segurtasun-dispositiboei loturiko guztian. Bestetik, Brigada Mugikorra Ataletako unitateei esleitutako funtzio eta zereginetan osagarria da.

Espezializaio handia behar duten zereginak betetzeaz gain, bere eraketak ere ahalbidetuko lioke laguntza-eginkizunak bereganatzea presoak lekualdau eta espetxetik kanpo zaintzeko; egun lan hori Basauriko, Donostiako eta Gasteizko ertzain-etxeei baitagokie. Azkenik, esan behar da Brigada Mugikorrak ere jarduera prebentibo jakin batzuk egiten dituela.

Manifestazioetako gertaerekin loturiko egintzetan izandako jarduketa-kopurua jaisten ari da eta, kasu jakin batzuetan izan ezik, komisaria txikien eremuetan oso gutxi dira. Gaurko egoera dela eta, egoki ikusten dugu ordena publikoa berrezartzeko jarduketa guztiak progresiboki Brigada Mugikorrera transferitzea.

4.15. PERTSONAK BABESTEIA ETA LAGUNTZEA

Pertsonak babestu eta laguntzeko zereginak kriminalitate terroristari estu-estu loturik daude; horregatik, hein handi batean, etorkizunean beren eboluzioa ETaren iraupenaren menpe egongo da. Euskadin terrorismoa desagertzen ez den bitartean, lan honek Eusko Jaurlaritzaren lehentasunezko helburua izaten jarraituko du eta, asmo horrekin, eraginkortasun-mailarik handiena lortzeko beharrezko baliabide guztiak zuzenduko ditu. Pertsonak babestu eta laguntzeko zerbitzuen antolaketa beti irizpide profesionalak erabiliz eta arriskuen ebaluazioak kontuan hartuz burutuko da.

Jarduera horiek aurrera eramateko, Ertzaintzak Babeserako Unitatea (Berrozikoak) du; etengabeko segurtasun-, babes- eta eskolta-beharrei erantzuna ematen baitie.

Pertsona askok babesa behar izan dutela eta babesa behar dutela kontuan hartuta, Laguntza Unitatea martxan jarri zen. Zerbitzu-eginkizunetan dauden ertzainek osatuta dago.

Laguntza Unitate hau etorkizuneko beharretara egokituz joango da, baina betiere egungo kideen eskubideak gordez. Azaltzen den ordenan, bere eginkizunak hauek dira: Berroziko Unitateak bere gain hartu ezin dituen pertsonen babes indibiduala, mehatxatutako pertsonentzako kontrazaintza, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen babesa edo zehazten diren beste zerbitzu batzuk.

Bi maila hauek segurtasun pribatuko pertsonala ematen duen babesarekin osatzen dira. Pertsonal horren prestakuntza Euskal Herriko Autonomia Ikastegiko birziklatze-ikastaroekin indartu da.

4.16. TRAFIKO ATALA

Gure errepideetako segurtasuna hobetze aldera, bide-segurtasuna zaintzeaz arduratzen diren ertzainen espezializazio handiagoa behar da, baita helburu horretarako giza-baliabideak eta baliabide teknikoak indartzea ere.

Espezializazioaren eremuan prestakuntza eguneratua eskainiko zaie Bide Segurtasuneko espezialistei (patruilak) eta Trafikoko unitateetako ikerketa-agenteei. Lehenengoek berriki 190 agenterentzat eta 27 agente lehenentzat deitutako espezializazio-ikastaroa egiteko aukera izango dute. Ikerketako agenteei dagokienez, lanpostu horiek hartzeko alde aurreko baldintza den berariazko prestakuntza egitea proposatu da.

Trafikoko ikerketa hiru mailatan dago eratuta: oinarrizko bat, ertzain-etxeetan dagoena; espezializatu bat, Trafikoko Unitateen ardurapean dagoena; eta goimailako beste bat, istripuak berritzea bilatzen duena eta Ataleko Bulegoan dagoena, orain arte izan ez baita.

Trafikoko Unitateek biktimak dituzten istripu guztien izapideak egitea nahi dugu, era horretan komisariei zeregin hori kentzeko. Horretarako, Trafikoko Unitateetako ikerketa-sekzioei atxikitako agenteen kopurua handitzea proposatu da, eta horietako agente bat Bergarako azpiegoitza berrian kokatutako instalazio batzuetan jartzea. Horren bidez, erantzun-denbora egoki bat lortuko da.

4.17. KRIMEN GAIETARAKO POLIZIAREN ATALA

Espainiako gainerako herriekiko eta Europako herrialderik aurreratuenekiko, Euskadik delinkuentzia-indize txiki samarrak dituen arren, azkenaldi honetan kriminalitatearen gero eta eboluzio arinagoa atzeman da eta, besteak beste, horren arrazoiak hauek izan daitezke:

- Mugak desagerrazi izana eta europar gunek komuna sortu izana; pertsonen, ibilgailuen, salgaien etabarren mugimendua erraztu baitu, ia kontrolik gabe.
- Delinkuentzia-mota berrien inportazioa, eta indarkeria modu nabariaz erabiliz, erakunde edo talde kriminalen barruan zein delituak egitean jarduera kriminalaren bidez.
- Delitua prestatu eta egitean hobetzeko delinkuentzia eta kriminalitatea etengabe eboluzionatzen ari direla egiaztatzea; eta hobekuntza bilatzen dute *modus operandiak* zuzenduz eta

garatuz, delituak hobeto egiteko tresna berriak eta modernoak erabiliz, informazio-teknologia berriak baliatuz, delituak egitean lortutako dirua zuritzeko moduak berrituz, etab.

Errealitate horrek behartzen gaitu delitu-teknika berriak atzemateko laguntzen duten mekanismoak ezartzera eta; halaber, argitzeko bermeak izan ditzaten, agenteei delituen ikerketari aurre egiteko behar dituzten gaitasunak eta ezagutzak ematera.

Mekanismo horietako bat espezializazioa da. Dokumentuak proposatzen duen bezala, ikerketei egitura zentralizatuetatik aurre egiteak berekin delitu-mota desberdinen antzeko ikerketen metaketa handiagoa dakar. Delitu-tipologia jakin batzuen larritasuna edo berezitasuna direla eta, gomendagarria da ikerketa horien ardura duten agenteak espezializatzea, eta era horretan ikerketak argitzeko eraginkortasun eta kalitate handiagorako oinarriak ezarriko dira.

Gainera, delitu jakin batzuen eboluzioak derrigorrezko egiten du jardun-eremu berriak irekitzea. Orain dela gutxi Ertzaintzak ingurumenaren kontrako delituak ikertzeko talde bat abian jarri du. Horrez gain, beren eboluzioa eta eragina direla eta, pentsatzekoa da delitu informatikoen kontrako borroka indartu egin beharko dela.

4.18. TERRORISMOAREN AURKAKO ETA INFORMAZIOKO ATALA

Mundu osoan eraso terroristen izaera gero eta anitzagoa da, bai intentsitateari dagokionez bai arrisku-mailen inguruan. Eta horrek prebentzioa eragozten du eta, ondorioz, segurtasun-indarren erantzuna ere bai. Kasu batzuetan poliziak aurre egin behar die suntsipen masiboko armak edo, jomuga bereizi gabe suntsidura edo sarraski handiak eragin ditzaketen beste baliabide batzuk erabiltzeko prest dauden terroristei.

Testuinguru honetan, Ertzaintzak informazioa bildu eta aztertzekeo gai izan behar du, horrela intelingentzia eratzeko eta mehatxu berriei eta terrorismoari aurre egiteko froga-iturriak eskura ditzan. Kontua da ikerketa- eta inteligentzia-prozeduren bidez aurrea hartzea ETAREN bertoko terrorismoaren kontrako borrokari zein mehatxu berriei eta delinkuentzia-modu berriei, hain zuzen, berme nahikoaz aurpegi emateko.

Ertzaintzako zerbitzuek eboluzionatzeko eta malguak izateko gai izan behar dute oraingo eta etorkizuneko erronka berrietara moldatzeko. Horrenbestez, beharrezkoa da helburuak, baliabideak eta agenteen espezializazioa berregituratzea; ahaleginak prebentzioan jartzea eta inteligentziaren bidez beren gaitasun prediktiboa handitzea.

Beharrezkoa da zerbitzuen eta unitateen mugak gainditzea atal guztietako ertzainek osatutako baterako zehar-taldean esparruan lan egiteko, helburu nagusia arazoak identifikatzea, haiei aurrea hartzea, informazioa lortzea eta ikerketa espezializatua egitea dela.

Lehen azaldutako diagnostikoa aintzat hartuta, Terrorismoaren Aurkako eta Informazioko Atalak etorkizuneko honako helburu estrategikoak jarri ditu:

- Behin betiko desagertu arte lehentasunezko helburutzat edukita, ETAREN terrorismoaz eta bere delitu-inguruaz informazio-, prebentzio- eta ikerketa-arloan egiten ari diren lan-prozedura eta -sistemekin jarraitzea.
- Terrorismo islamikoaz eta bere delitu-egituraz informazio-, prebentzio- eta ikerketa-arloan egiten ari diren lan-prozedurak eta -sistemak gehitzea.
- Kriminalitate-modu berriak identifikatzeko polizia-informazio eta – inteligentziatik ahaleginak areagotzea: krimen antolatua, delitu-mota berriak, mehatxu ekonomikoak, mehatxu informatikoak (kriminalitate zibernetikoa, terrorismo zibernetikoa...) emigrazio-sareak, droga-trafikoa, ustelkeria, etab.
- Beharrezko segurtasun-baliabideak inplementatzea garrantzi handiko eraso terroristak prebenitu, identifikatu eta, hala behar izanez gero, neutralizatzeko, baita azpiegitura bereziei eta orokorki herritarrei kalte egin diezaikkeen edozein eraso ere.

Terrorismoaren Aurkako eta Informazioko Atalak bere zeregina betetzeko beharrezkoak diren baliabideak izango ditu. Neurri batean bere lana ETAREN terrorismoak egin dezakeenaren menpe egongo da, baina ez da baztertu behar beste zeregin batzuen garrantzia. Bere tamaina mehatxu berrietara egokituko da; hain zuzen, horietako hainbat bistakoak dira eta beste batzuk, ordea, globalizazioaren fenomenoaren zehar-ondorio gisa sor litezke.

4.19. INFORMATIKA ETA TELEKOMUNIKAZIO SISTEMEN MODERNIZAZIOA POLIZIA SISTEMA KUDEATZEKO

Ertzaintzak baliabide teknikorik aurreratuenak izan behar ditu, betiere egoera ekonomikoak jarduteko ahalbidetzen dituen aukeren arabera.

Gai honetan aurreikusitako berrikuntzek funtsezko hiru eremu ukitzen dituzte: Poliziaren informazio Sistema, patruilen hornidura eta udaltzaingoekiko koordinazioa.

Poliziaren Informazio Sistema (PIS)

Herrizaingo Sailak GEZInet proiektua abian jarri du, egungo PIS (Poliziaren Informazio Sistema) sistemaren berringeniaritza eta egunerapen teknologikorako, dagoeneko 20 urte baititu eta zaharkitzapenetik hurbil baitago. Ekimen honen bidez honako helburu hauek lortu nahi dira:

- Informazio-aktiboak kapitalizatzea gure Poliziaren “inteligentziari” gehitzeko.
- Ertzaintzari konponbide hobeak eskaintzea prozesu polizialen egunerapen teknologiko eta berringaritzaren bitartez.
- Funtzionaltasun eta eskakizun berriak eranstea.
- Prozesu polizialak modernizatzea teknologia berrietara egokituz.
- Operazio-kostuak murriztea.

Patruiletan egin beharreko berrikuntzak

Informatika- eta komunikazio-teknologia ibilgailuetan instalatuko da eta horrek ahalbidetuko du:

- In situ eta berehala ibilgailu, pertsona eta abarri buruzko polizia-informazioa izatea.
- Prozesuak, salaketak kasu, herritarrarengana hurbiltzea.
- Atxilotuen lekualdaketa grabatzea.
- Agenteei barne-kudeaketako prozesuak erraztea.
- Pratruiila-autoak kudeatzea eta lekutzea.
- Irudiak kapturatu eta bidaltzea, baita datu-baseetan kontsultatzeko matrikulen kaptura automatikoa ere.
- Salaketen eta ordainketa automatizatuen kudeaketa Trafikoko patruilen aldetik.
- Mugikortasunaren alorrean beharrezkoak izan daitezkeen funtzionaltasun guztiak gehitzeko gai den plataforma bat abian jartzea.

Udaltzaingoekiko koordinazioa

Udalen menpeko kidegoekiko koordinazioaren arloan lanean ari gara, hala nola, Udaltzaingoen Ataria sortzeko proiektuan. Horren bitartez zenbait zerbitzu eta informaziotarako sarbidea erabili ahalko da, baita Udaltzaingoen Erregistroa eta lanbide-txartela eta plaka emateko ere.

Era berean, segurtasunaren eta larrialdien alorreko koordinaziorako, abian jarri da udaltzaingoak Herrizaingo Saileko TETRA irrati-sarean sartzeko eta, bestetik, walkie-talkien bidez Ertzaintzaren datu-baseetako pertsona eta ibilgailuei buruzko informazioa atzitzeko prozesua. Proiektu hau, koordinatu eta

partekatzeko lanei begira, funtsezko komunikazio-bidea da. Udaltzaingo txikientzat jauzi kualitatiboa izango da eta udalerrri mugakideetako poliziekiko koordinazioa ahalbidetuko du. Gainera, atariaren bitartez, trafikoko (istripuak) zein datu polizialen gaineko informazio estatistikoa trukatu ahalko da.

4.20. PRESTAKUNTZA, SUSTAPENA ETA EGONKORTASUNA LANEAN

Karrera profesionalaren diseinu egoki bat Sail honek giza-baliabideak kudeatzeko dituen erronkarik handienetako bat da, bai Ertzaintzaren antolamenduaren aldetik bai antolamendu horretan zerbitzuak ematen dituen agentearen aldetik, aurreratzeko eskubide indibiduala bermatuta izan behar baitu.

Legegintzaldi honetan Ikastegiaren jardun-irizpideetako bat da prestakuntza-jarduera, kategorien hornikuntzari begira, erakundearen beharrekin koordinatu eta integratzea.

Gaur egun Ertzaintzako pertsonalaren banaketan narbarmentzen da eskaletan eta kategorietan jabez bete gabe dauden plazen kopurua.

Herrizaingo Saileko lanpostuen zerrenda 8.000 ertzaintzat finkatuta dago, baina 2010eko irailean 7.683 ertzainek osatzen zuten. Horrek adierazten du bakarrik 6.342 ertzain direla beren lanpostuaren titularrak; hau da, % 79,28. Gainerako 1.341 ertzainek ez dute lanpostua jabetzan.

Bereziki aipatzekoa da goi-kategorietan dauden plaza hutsen portzentajea: ofizialondoko-plazen % 51,30 bete gabe daude; ofizial-plazen % 47,32; komisariondoko-plazen % 30,10 eta komisario-plazen % 47,27. Intendente eta superintendenteen plaza guztiak titular gabe daude eta gaikuntzen bidez betetzen dira.

Hortaz, Ertzaintzako karrera bertikalaren garapena, aginte-kate osoan plazak betetzea hasieratzat hartuta, presako zeregina da.

Formalki, edozein herri-administrazioetako plazak eskala, klase eta kategorietan daude egituratuta. Lanpostu horiek atxikita dauden titulazio-taldearen arabera sailkatzen dira. Ertzaintzan, baina modu orokorrean Funtzio Publikoan, *karrera administratiboa* betetako lanpostuei lotzen zaie; hau da, lanpostu horiek atxikita dauden titulazio-taldee (eskalen arabera, etab.). Hori dela-eta, funtzionarioek *karrera administratibo horretan* sustapena mugatuta dute.

Administraziorik modernoenetan Funtzio Publikoan egun dagoen joera ez da funtzionarioen karrera profesionala unibokoa edo *karrera administratiboaren* kontzeptuarekin parekagarria den zerbait balitz bezala tratatzea, baizik eta konplexuagoa den zerbait ulertzea. Ikuspuntu horretatik, *karrera profesionala* karrera administratiboak edo *bertikalak*, *karrera horizontalarekin* batera, osatuko luke.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko Legeak sustapen horizontalaren kontzeptua sartzen du. Horren bidez, aurrerapen profesionala norberaren merituei lotzea ahalbidetzen da, goi-mailako hierarkiako plazak daudela edo ez daudela kontuan hartu gabe. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Lege berri honen bidez, hala nahiko luketen Administrazioek *karrera horizontaleko sistema* bat ezarri ahalgo lukete; hain zuzen, goi-mailako lanpostuetara igotzeko mugikortasun hierarkiko edo bertikalean oinarritzen ez den sistema, baizik eta ezagutza teknikoaren eta enplegatu publikoak egindako lanaren onarpenean; betiere zenbait kategoria edo modalitate zehaztuz eta kategoria-kopurua ezarriz.

Ertzainen karrera profesionala era honetan definitu ahalgo litzateke: Bere lan-bizitza osoan Ertzaintzako profesional batek, bere prestakuntza eta esperientziari loturik, izan duen ibilbidearen aitorpena.

Ertzaintzan karrera profesionalaren planik ez egoteak, besteak beste, agenteek interesa galtzea eragin du, nahiz eta oinarrizko eskubidea izan. Izugarri konplexua eta sarri arazo-iturri izan arren, lehentasun politiko gisa garatu beharreko plan hau giza-baliabideak hobetzeko tresnatzat hartu behar da, era horretan errendimendua hobetu eta Sailaren helburuak lortze aldera.

Prestakuntza eta maila-igoera eta ertzainaren karrera profesionalean duen ondorioaren inguruan, hauek dira ikastegiak dituen erronkarik handienak:

- aginte-kate osoa betetzeko eta karrera bertikala garatzeko prozesuak martxan jartzea,
- karrera profesionalaren azterketa integralerako ekarpena egitea: bertikalarena zein horizontalarena; eta
- kategorietan eskatutako titulazioak baliokidetzeko aukeraren garapena, Hezkuntza Sistemaren Ordenamenduari buruzko Lege Organikoan eta garapen-arauetan ezarritakoaren arabera.

Poliziaren Kidego Nazionalak, Guardia Zibilak eta Mossos d'Esquadrak berariazko titulazio akademiko baten aitorpena lortu dute agente batek betetzen duen kategoriarako; hain zuzen, titulazioa lanbide-kategoria bati esleitzen dion Hezkuntza Ministerioaren araudiaren bidez.

Beraz, posiblea litzateke titulazio bat erabiltzea lanbide-sustapena egiteko, Ertzaintzarako zein edozein mailatako funtzionario publiko baten plaza lortzeko edozein deialditan. Gainera, zuzeneko araudiaren bidez lortutako titulu berritik abiatuta, ikasten jarraitzeko aukera egongo litzateke. Kategorietan emandako prestakuntza Hezkuntza Sistemarekin parekatzeko ildoak Euskal Herriko Polizia Ikastegiaren ildo estrategikoa da.

Hona hemen karrera profesionala garatzea ezinbesteko egiten duten arrazoiak: Prestakuntza berarekin zenbait lan egiteaz arduratuta dauden agenteen kopurua, beren eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren funtzio eta ezagutza

desberdinen kopurua, ezagutzak etengabe eguneratzeko beharra eta arloetan emaitzarik hoberenak eskuratzea ahalbidetzen duten baliabideen modernizazioa, baita bide horretatik jotzen duten agenteen nolabaiteko segurtasun juridikoaren eskakizuna ere.

Karrera profesional horizontala barru-barrutik lotuta dago Ertzaintzan behar diren espezialitateen zehaztapenari; hain zuzen, espezialitate horiek prestakuntza-moduluaren edo irakasgai-multzoen bidez egituratzeko eta edukiz betetzeko. Irakasgai horiek Ertzaintzako ataletan beharrezkoak diren espezialitate batzuetan edo guztietan komunak diren ezagutzak dituzte, eta horiekin batera jardun-eremu espezifiko bakoitzeko trebetasunak garatzen dituzten beste batzuk.

Funtzio bakoitzarentzat espezifikoak diren ezagutza-sailetan egindako egituraketa honek ahalbidetuko luke prestakuntza ertzain-talde txikiagoetan aplikatzea, modu arinagoan eta eraginkorragoan egin ahal izateko, betiere une bakoitzean atzemandako beharren arabera. Horrela zehaztutako arloetan adituak sortuko lirateke, karrera profesional horizontala garatuz.

Jardun-ildo honen bidez hainbat atalenzat prestakuntza-modulu espezifikoak planteatu litezke. Hona hemen: Trafiko Ataleko Unitateak, Ikuskatzailak eta Administrazio Atala, Joko eta Ikuskizun Unitatea, Segurtasun Pribatuko Unitatea, Polizia Zientifikoaren arloak etab. Gainera, guztiek jakin beharreko gaien moduluak edo irakasgaiak gehituko lirateke.

4.21. LANBIDE ZUZENDARITZA OPERATIBOA

Polizia-zerbitzuan eraginkortasun handiagoa lortzeko helburua dela-eta, beharrezkotzat jotzen dugu burutza profesionalaren irudia, atal guztiak operatiboki koordinatu eta ikuskatzeko.

Karrerako polizia-arduradun gorenaren irudiaren bitartez egitura profesionala burutu nahi da, agintari gorenaren jarritz. Era berean, haren ordezkari eta goi-agintaritzaren operatiboa elkartzeko nahi dira, baita saileko egitura politikoarekiko zuzeneko elkarrizketa ere. Burutza horren zerbitzura Zuzendaritza-laguntzaile operatibo bat egongo da, eta haren egitekoak betetzen lagunduko dio.

Xede horrekin, Ertzaintzaren Egitura Agindua aldatuko dugu.

4.22. SEGURTASUNA IKUSPEGI INTEGRAL BATETIK

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko etorkizuneko Legeak Euskadiko segurtasun publikoaren arau-sistema berrantolatu nahi du, horretarako honako hauek biltzen dituen sistema eratuz: polizia-azpistema, larrialdietarako azpistema eta babes zibileko azpistema eta, bestetik, sektoreko beste politika batzuk, hala nola, ikuskizunena, jolas-jarduerena, zori-jokoena, segurtasun pribatuarena edo trafikoaren eta bide-segurtasunaren politikak.

Ikusmolde hau Sailaren politika guztietan dago. Beharrezkotzat jotzen da zenbait fenomenori erantzun integral bat ematea. Hona hemen: azpiegitura garrantzitsuen kontra nahita egindako erasoak, gazte-indarkeriaren prebentzioa, desordenak kirol-kontzentrazioetan, errepideetako ezbehar-kopurua, genero-indarkeriaren edo delinkuentzia antolatuaen kontrako borroka.

Aurreikusitako neurrien bidez segurtasun publikoan parte hartzen duten guztien ahaleginak eta sinergiak batu eta koordinatu nahi dira, era horretan zerbitzuak emateko efikazia eta eraginkortasuna indartzeko.

Jarraibide hauen bitartez, Arkauteko Ikastegia, Euskadiko Polizia eta Larrialdi Ikastegia den aldetik, ikuskera zabalago baterantz doa. Martxoaren 30eko 96/2010 Dekretuak etorkizuneko Ikastegiaren oinarriak jartzen ditu segurtasun publikoaren ikusmolde integrala erabiliz. Horren arabera beharrezkoa da herritarrak babestu eta laguntzeko diren talde guztiak segurtasunean integratzea; bai polizia-eremutik, bai larrialdi-eremutik edo babes zibileko eremutik.

Garrantzitsua ere bada udaltzainen prestakuntza. Oinarrizko prestakuntza-ikastaroak planifikatzen ari gara, udalek Ikastegiko hautaketa- eta prestakuntza-prozesuen garapena ikusteko aukera izan dezaten. Era berean, lanean ari gara udalentsako gida bat prestatzeko. Haren bidez, oposizioen oinarrietan, gaietan eta probetan uniformetasun handiagoa lortu nahi da.

Herrizaingo Sailean lan egiten duen segurtasun pribatuaren prestakuntza Ikastegian egin da 1.200 eskolta baino gehiagorentzat birziklatze trinkoa eginez. Ikastegiak prestakuntza hori aitortu du lanbide-kartillan jaso dadin.

Larrialdien eta Babes Zibilaren arloan, bilerak egiten hasi gara Suhiltzaile Zerbitzuen arduradunekin eta Babes Zibileko Euskal Batzordeko boluntariotzarako aholku-batzordearekin.